

The background of the entire page is a microscopic image, likely a histological section of kidney tissue. It features a dense field of blue-stained cells. In the upper left quadrant, there is a prominent, circular structure with a green core and concentric red and purple layers, resembling a glomerulus or a specific cellular inclusion. In the bottom left corner, there is a cluster of red-stained cells, and in the bottom right corner, there is a green, star-shaped structure.

UR-BAZTERRETIK

ORIKO HEZKIDETZA-DIAGNOSTIKOA

IZENBURUA

UR- BAZTERRTIK Orioko hezkidetza-diagnostikoa

EDITOREA

Orioko Udala- Hezkuntza saila

KOORDINATZAILEA

Saregile, Orioko Emakumeon* Etxea

PROZESUAREN DINAMIZAZIOA ETA TESTUAK

Eihera Koop. Elk. Txikia

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Eneritz Ibarra Azpeitia

AZALEKO ETA BARRUKO ILUSTRAZIOAK

Eneritz, Ingrid, Natalia, Noa, Uxue

ARGITALPEN URTEA ETA LEKUA

2025, Orio

INPRIMAKETA

Gráficas Juaristi

LEGE GORDAILUA

LG D 00951-2025



Lizentzia CC BY NC SA

Lan hau Creative Commons lizentziapean dago. Lizentzia honek: Lana zabaltu eta elkarbanatzea ahalbidetzen du, iturria aipatu eta egileen aitortpena eginda eta lizentzia mota bera erabilita. Ez da obra hau saleroketa helburuekin erabiltzea baimentzen.

UR-BAZTERRETIK

ORIOKO HEZKIDETZA-DIAGNOSTIKOA

AURKIBIDEA

SARRERA	5
01. KOKATU GAITEZEN	6
02. HEZKUNTZA	19
FORMALA	20
EZ-FORMALA	37
03. HERRIGINTZA ETA KULTUR TRANSMISIOA	43
04. HERRITARTASUNA KULTURARTEKOTASUNETIK	
ERAIKITZEN	67
05. KIROLA	87
06. MUGIMENDU FEMINISTA ETA LGTBIQ+	101
07. ETA ORAIN ZER?	113
ERANSKINA:	
Herriko festak antolatzeke balioen multzoa	116

SARRERA

la hamar urte dira eskualdean hezkidetza-foro bat sortu zela, ikastetxeetan generoarekin, indarkeria matxistarekin eta aniztasunarekin zerikusia duten gaiak elkarrekin lantzeko. Foro horrek Zumaiatik Oriora bitarteko udal eta ikastetxeak biltzen zituen eta berak bideratu zituen, zenbait urtez, hezkidetzaren alorrean eskualdeko udalek eta ikastetxeek antolatutako jarduera bateratuak, egun seinatu batzuen inguruan: azaroaren 25a, martxoaren 8a eta maiatzaren 17a.

Premiak handitu ahala, ordea, gero eta nabarmenagoa zen eskualdeko foroak gabezia handiak zituela gaur egungo egoerari behar bezala erantzuteko eta, hori dela eta, Orioko Udalak herriko hezkidetza-mahaia sortzea erabaki zuen 2024an, alor horretako eragileak bildu eta elkarlanean jartzeko.

Orioko hezkidetza-mahaiak bere buruari jarri zion lehenbiziko lana herriko hezkidetza-diagnostikoa egitea izan zen eta, horretarako, Eihera aholkularitzaren zerbitzuak kontratatu zituen Udalak 2024ko irailean.

Eihera herriko lagun askorekin egon da azken hilabeteotan, diagnostikoa osatzeko, eta eskuartean duzun hauxe da lanketa horren emaitza. Uste dut diagnostiko honek ondo seinatzen dituela datozen urteotan herrian landu beharreko gaiak eta pista ugari ematen dituela aurrera begirako zereginak egoki bideratzeko.

Anuska Esnal Oliden, alkatea

01



KOKATU GAITEZEN

01 KOKATU GAITEZEN

*Baina arrantzale herri bat da, arraunlari herri bat,
hori oso barrutik bizi duena, eta kostatu egingo da, asko,
hori erotik kentzea. Oraindik ez da kendu:
arrantzale eta arraunlari herria izaten jarraitzen du.
Baina... ez dakit... «con esa bravura machista».
Hori apalduko da, baina nik oraindik berde ikusten dut oso.
Pausoak ematen ari dira, hemen gaude,
Saregile dago eta asko da,
baina, tira, lan asko dago oraindik egiteko.*



MARKO TEORIKOA

Hezkidetzatik gatz

Hezkidetza definitzeko momentuan, uste eta erabilera orokorrari jarraituz, ziurrenik, hezkuntzan kokatutako praktika bati begiratuko genioke, non helburua norbanako guztiak berdintasunean eta bazterkeriarik gabe heztea den, betiere aniztasuna oinarri hartuta.

«Desberdintasunetatik abiatuta berdintasunean heztea da, oso xede garbiarekin: etiketarik gabeko mundua eraikitzea, non emakumeak eta gizonak maila berean egongo baitira, beren eskubide eta askatasunekin»

Amelia Barquín, 2016

Euskal Herrian, nolanahi ere, ibilbide oparoa izan duen praktika eta pedagogia-proposamen bat ere bada. Eta hezkuntza formalari begira garatu bada ere, hainbat izan dira eraikuntza eta praktika hori garatu duten arloak.

Batetik, instituzioetatik egin da lan hori, (EAEko Hezkidetza Planak edo Nafarroako Skolae proposamena, adibidez), horiek Hezkuntza arloan garatzeko baliabideak ere garatu dira (Berritzeguneetatik, esaterako), baina baita gertuko instituzioek bultzatuta ere (udalerrietako Hezkidetza Plan eta Programak eta Hezkidetza Mahaiak). Programa horiek guztiak, ordea, ikastetxeetako hezkidetza-programen barruan, kanpo-formazioaren bidez ere indartu dira zenbait elkarte eta kooperatibaren formakuntzekin. Gainera, hezkidetzan formatzen edo horren inguruko hausnarketan, akademiatik ere lanketak egin dira (EHU eta UEUko graduondo eta ikastaroekin). Eta, azkenik, ezin ahaztu, etengabeko ekarpen, sortze, teorizatze eta akuilu-lana egiten aritu den Mugimendu Feminista (Bilgune Feministaren Hezkidetza gida, adibidez).

Historikoki, beraz, hezkidetza hezkuntza formalari begira garatutako pedagogia eta oinarrien proposamen gisa ulertu izan dugu. Eta moduren batean laburtuta, hezkidetzak urtez urte, legez lege eta proposamen desberdinen bidez, baditu oinarritzko zutabe eta praktika batzuk, garai eta leku desberdinetan lehentasun desberdinez aplikatu direnak, baina, finean, puntu hauetan laburbildu daitezkeenak:

- Balioen transmisio ez sexista egitea. Rol eta estereotipoetatik at hezteak.
- Emakumeen ikusgarritasuna sustatzea, gizarteari egindako ekarpenagarik adibidez.
- Transmisiorako materialak generoaren arabera errebisatzea.



- Hizkuntzaren erabilera ez sexista lantzea.
- Espazioaren (ikaskela, patio...) erabileraren errebisioa eta oreka sustatzea.
- Jarrera sexistak identifikatu eta tratu onetan oinarrituriko harremanak sustatzea.
- Eraldaketarako, pribilegio eta botere-harremanen kontzientzia hartzea.
- Metodologia eta pedagogia parte-hartzaileak aplikatzea.

Helburu orokor horietatik abiatuta, ordea, urtez urte, proiektuz proiektu eta esperientzia desberdinak medio, kontzeptua eta eragin-esparrua (hezkuntza formala) zabaltzen eta hedatzen joan da. Nolabait, eraldaketa aplikatu nahi den jo-puntua edo eragingunea ere zabaltzen joan da. Hala, ikasleei soilik bideratutako jarduna izatetik, eskola-komunitate osoari zabaltzen joan da (irakasleak, haurren tutoreak...) eta, atzetik, hezkuntza-komunitate osoa osatzen duten arloetara ere bai: eskola-kirola, jantokia, eskolako langileak, hezkuntza ez-formala...

Bestetik, hezkidetzaren oinarrian dagoen berdintasun-kontzeptu hori, genero-eraikuntzak zein sexu-genero sistemak eragiten duen desberdinkeria aurre egitera bideratu bada ere, urteekin, errealitatearen **zapalkuntza anitzei** begira jarri eta, **bestelako aldagai batzuk** ere kontuan hartu dira: arraza, klasea, jatorria, gorpuzkera, gaitasunak...

Aldi berean, **proposamen pedagogikoak** ere tokiko eta garaiko errealitateetara egokitzen joan dira, azken urteetan; Pedagogia Feministak izendatu ditugu proposamen horiek eta, eduki zehatz batzuen transmisiotik harago, fokua jarri dugu eduki

horiek **transmititzeko moduan** eta sozializazioan sortzen diren botere-harremanetan.

Bestetik, sexu-genero sistemaren inguruan hausnartzeaz gain, **genero-eraikuntza bera non eta nola** gertatzen zen ere landu da, ulertuz eraikuntza hori konplexua dela eta esparru askotatik eraginak jasotzen dituen prozesu bat dela.



Eiheraren sorreratik ere, ibilbide horretan dihardugu gure jardunean, oraindik beharrezkoak diren lanketak eginez, ikastetxe eta curriculumari hertsiki lotuta, ikasleekin eskuhartze eta formakuntza zehatzak eginez, baina, baita, begirada eta pedagogia zabalduz eta eragiteko gaitasun eta beharra duten elementu, espazio, norbanako eta praktiketara gure jarduna zabalduz.

Beraz, paradigma aldaketa honetan, kontziente gara, hezkidetza- edo pedagogia-jardunek ezin dutela eskola edo hezkuntza-komunitatera soilik mugatu, norbanakook bestelako balioen transmisiorako esparru eta praktika askoz gehiago ere baditugulako gure egunerokoan. Horregatik, proiektu honen azterketa-esparrua definitzerakoan, begirada zabaltzea ezinbestekoa izan da.

Herri hezkidetzaileara goaz

Eiheran, Orioko hezkidetza-diagnostikoa egiteko proposamena jaso genuenean, argi izan genuen aztertu behar genuen esparrua, ezinbestean, eskola hertsitik haragokoa izan behar zuela. Beste era batera esanda, herri hezkidetzailearen markoan kokatu nahi genuela azterketa. Horretarako, herri hezitzailearen ideiatik abiatu ginen:

«Herri hezitzailearen filosofiatik hezkuntza, eskolaz eta familiaz haratago, herriko eragileen arteko ardura konpartitu moduan ulertzen dugu: tokiko udalek, hezkuntza formal zein ez-formaleko eragileek eta herrigintzakoek partekatzen dugun ardura, hain zuzen ere. Hezkuntza edozein herri edo komunitateren esparru berebizikoa da. Hezteak, baina, ez da soilik eskolaren edo familiaren betebeharra, jendarte osoarena baizik. Beraz, hezkuntzaren ardura eskola erakundetik haratago kokatu, eta hezkuntza ikuspegi integralaz hitz egitera pasa nahiko genuke»

Oinherriren definizioa

Alegia, gu geu ere, Orioko hezkidetzaren erradiografia bat egitera bagindoazen, ezinbestean, eskolatik harago, herri mailako eragile, espazio publiko, zerbitzu, hezkuntza ez-formal, aisialdi, kirol-elkarte, mugimendu sozial, mugimendu feminista eta LGTBIQ+ eta abarri begira jarriko ginela eta eraldaketak ere osotasun horren baitan ulertuko genituela.

Bestalde, hezkuntza eta hezkidetzaren kontzeptuak **balioen transmisio-sistema** gisa ulertuko genituela, alegia, aztertu nahi genuela herriko espazio eta jardunetan zer nolako balioen transmisioa egiten zen eta zer nolako eraldaketarako potentzialitate zuten.

Izan ere, Orio bezalako herri txiki batean, balio-sistema horiek guztiek identitate-sistema bat ere eraikitzen dutela uste dugu eta, beraz, interesgarria da jakitea zein diren horretan guztian gizon, emakume eta gainontzekoen paper, leku eta jardunak. Hala, aurrerago ikusiko dugun gisan, herri-identitate baten oinarrian hainbat faktorek eragiten dute, baina sozializazio horretan, ezinbestean, bere lekua du genero-eraikuntzak.

Gure kokapena hori izanik, beraz, galdera batzuekin abiatu genuen ikerketa: Non ematen da genero-eraikuntza eta ikasketa Orion? Zein paper jotatzen du eskolak, etxeak, aisiak, espazio publikoak, kirolak, militantziak, herrigintzak...? Nola gertatzen da transmisio hori? Esplizitua al da? Zein leku dute ohitura eta tradizioek horretan? Zer jartzen da balioan eta zer gutxietsi? Nondik eta nola alda daitezke desberdinkeria sortzen duten jarrera eta usteak?



METODOLOGIA

Diagnostikoa egiteko erabili den metodoa **kualitatiboa** izan da, kontuan izanik herri mailako irakurketa orokor bat egin nahi izan dela eta, horretarako, herriaren ezagutza, esperientzia, irakurketa partekatuak, aurrekariak... ezinbesteko elementuak direla idiosinkrasia eta aldaketak hautemateko momentuan.

Horregatik, ezinbestekoa izan da eragile eta norbanakoen **bizipen eta sentsazioak** jasotzea. Beraz, metodologia kualitatiboa aukeratu izanaren arrazoi nagusia horixe izan da, alegia, sakoneko informaziora iritsi eta parte-hartzaileentzat garrantzitsua eta adierazgarria den kontakizuna jasotzen saiatzea.

Hori guztia jasotzeko, hiru azterketa-metodo erabili ditugu. Lehen, **taldeko lan-saioak**, batik bat eragile edota talde baten izenean ari zirenen bizipenak jasotzeko modua zelako. Bigarrenik, **elkarriketa sakonak** ere egin ditugu, banaka edo bi edo hiru kideko taldetxotan, aukera emateko hausnarketa bizipen eta esperientzietatik egiteko. Azkenik, herrian garrantzia berezia duten espazioen **behaketa** ere egin dugu, kasuen analisirako.

Jakina, horrek ez du esan nahi, une eta datu konkretu batzuk, modu kuantatiboan jaso ez direnik: parte-hartzaile kopurua, generoa...

Parte-hartzaileak eta analisi-unitateak

Guztira, 114 lagunek parte hartu dute prozesuan, horietatik 93 emakumeak izan dira eta 21 gizonezkoak. 20 lan-saio, elkarrizketa eta behaketa egin ditugu prozesu osoan.

Parte-hartzaile horiek arlo hauetan sailkatu ditugu: hezkuntza formala, hezkuntza ez-formala, eragile sozialak, kirola, herrigintza eta Udala.

Azpimarratu behar da eragile sozialak eta herrigintza bereizi egin ditugula. Eragile sozialek talde baten izenean parte hartu dute. Bestalde, herri mailako zenbait esparru, zerbitzu edo parte-hartze dinamikatan parte hartu dutenak herrigintzaren barruan sartu ditugu bereziki antolatuta ez badaude ere.

Analisi-unitate bezala, herri mailan edonolako balioen transmisioa egiteko gaitasuna duten espazio, norbanako, eragile, jarduera eta dinamikak aztertzen saiatu gara, bereziki, **adierazle** bezala, balio berdinzaleen transmisioa eta inpaktua zein den neurtu nahian.

Bestetik, sistematizatzeko orduan, nomenklatura bidez jaso ditugu berriemaileak; baina, irakurtzerakoan anonimotasuna bermatzeko, testuan zehar ez ditugu esanak nomenklatura horren bidez identifikatu.

Nomen- klatura	Arloa	Saio-mota	Parte- hartzea
E001	Hezkuntza formala	Elkarrizketa sakona	3
E002	Hezkuntza formala	Elkarrizketa sakona	3
E003	Hezkuntza ez-formala	Elkarrizketa sakona	1
E004	Hezkuntza ez-formala	Taldeko lan-saioa	15
E005	Eragile soziala	Taldeko lan-saioa	5
E006	Kirola	Elkarrizketa sakona	1
E007	Kirola	Elkarrizketa sakona	2
E008	Kirola	Elkarrizketa sakona	4
E009	Kirola	Elkarrizketa sakona	2
E010	Eragile soziala	Taldeko lan-saioa	5
E011	Eragile soziala	Taldeko lan-saioa	5
E012	Herrigintza	Taldeko lan-saioa	8
E013	Eragile soziala	Elkarrizketa sakona	5
E014	Herrigintza	Elkarrizketa sakona	3
E015	Eragile sozialak	E005, E011, E13rekin taldeko lan saioa	15
E016	Herrigintza	Elkarrizketa sakona	3
E017	Herrigintza	Behaketa	45
U001	Udala	Taldeko lan-saioa	9
U002	Udala	Elkarrizketa sakona	1
U003	Udala	Taldeko lan-saioa	11

*Parte-hartzaile batzuek leku batean baina gehiagotan parte hartu dute, horregatik, taula honen baturak 114 baino kopuru altuagoa ematen du.





ORION GAUDE

Eta nolakoa da Orio?

Azterketa bat abiatzen dugun guztietan bezala, jakitun gara, azterlari gisa, kanpo-begirada batetik jardungo dugula ezinbestean. Horrek alde biko norantzan jokatzeko du sarri. Batetik, azterketaren alde, izan ere, kanpo-begiradak aurrez dauden bizipen, korapilo, gatazka, historikotasun, ohitura edo ezagutza horietatik kanpo mantentzen gaituelako. Bestetik, kontra, herri-dinamiketan berebiziko garrantzia duten gertakari, jarrera, ohitura, gatazka edo idiosinkrasien ezagutzatik kanpo ere kokatzen gaituelako.

Horregatik, lehenengo pausua, gure kanpo-begiradatik genituen uste eta aurreiritzietatik at, Orio oriotarren ahotatik ezagutzeko saiakera egitea izan zen. Baina nola ezagutzen da herri bat bertakoa izan gabe? Noren bizipen eta hitzek definitu dezakete? Zeinenak dira uste egokiak eta okerrak? Guztiek balio bera al dute? Nola ikusten dugu geure burua bertan eta nola ikusten gaituzte kanpotik? Eta horrek guztiak nola eragiten du mundua ikusteko eta bizitzeko dugun modu indibidual zein kolektiboetan? Baina, batez ere, zer demontre du honek ikusteko generoarekin?

Galdera horien guztien baitan, eta kontziente izanik herri bat mila modutan definitu daitekeela (ziurrenik, pertsona adina definizioarekin), badira komunak zaizkigun elementuak, nolakotasunak, garrantzia bereziko bizipenak eta abar,

herritarren gehiengo batek haren herria nolakoa den esateko orduan errepikatuko dituenak, eta uste horiek ziren lehen pausu horretan bilatu nahi genituenak.

Horretarako, bileretan parte hartu duten hainbat eta hainbati bizi duten herri hau definitzeko eskatu genien ezer baino lehen. Bestetik, Orio ezagutzen ez zutenei herria azaltzeko burura etortzen zitzaizkien hiruzpalau hitz botatzea eskatu genien. Ariketa hori sei esparrutako taldeekin errepikatu ostean, konturatu ginen behin eta berriz errepikatzen zirela antzeko hitzak eta, beraz, bagenuela kontsentsu nahiko zabal batez, herria eta bertako dinamikak ulertzeko abiapuntu komun bat. Hauek izan ziren kontzeptu horiek, gehien errepikatu zirenetik gutxienera ordenatuta:

- Tradizionala/tradizioa
- Arrauna
- Herri arrantzalea
- Euskalduna
- Horia
- Balea
- Harrotasuna/ harroa
- Herrigintza



Tradizioa

Ezinbestean gehien aipatu zen hitzari heldu genion herriaren lehen argazki bat ateratzeko asmoz.

Tradizioa zer den zehazteko orduan, definizio asko irakur ditzakegu, baina badira errepikatzen diren kontzeptu batzuk. Ohitura eta erritu multzoa direla, kultura baten funtsezko osagaia dela, eta giza taldeek beren nortasuna eraiki eta beste giza taldeetatik bereizteko erabiltzen dituela, esaterako. Bada, ordea, tradizioari lotuta, gure ikerketa honetan pisu berezia izango duen beste nolakotasun garrantzitsu bat, hain zuzen, askorentzat belaunaldiz belaunaldi transmititzen den zerbait dela eta denboraren poderioan finkatzen den kultur ondarea eta portaera-ereduen multzoa dela. Azken horrek, portaera-ereduek, garrantzia berezia izango dute ikerketa honetan.

Izan ere, idatzi gabeko arauetz osatutako ondarea ere bada eta, barne/kanpo logikak, edo gu/besteak identitateak finkatzeko balio du. Eta komunitateko kide batzuek portaera horiek betetzen ez badituzte, mugimendu bat eragiten dute kolektiboan.

Orion ikusi dugu tradizioak, beraz, herriaren nolakotasunetik harago, herritarren identitatean eragina duela eta, baita, zuzen-zuzenean beste alor askotan ere: herriko dinamikak, jaiak, elkarguneak, ospakizunak, kodeak, botere-harremanak...

Parte hartzaileen «tradizioaren» nozio eta bizipenetan ere, nabari dugu hura bizitzeko moduan iraunkorra den tentsio bat dagoela. Batzuetan, tradizioa kutsu negatibo, mugatzaile edo estatiko bezala azaldu zaigu parte-hartzaile batzuen esanetan.

«Oso-oso sailkatuta dago herria, oso tradizionalak gara»

Eta beste batzuetan, haatik, tradizioak identitate eta funtzio konkretu bat betetzen du, baina ez da zerbait aldaezin edo estatiko gisa bizitzen, baizik-eta eraldatuz mantentzen jarraitu daitekeen nolakotasun gisa.



«Eta guk pentsatzen dugu, baita ere, tradizioak ematen diola herriari bere esentzia. Eta, orduan, ez dela tradizioa hiltzea helburua, eraldatzea baizik»

Beraz, hor genuen lehen gakoa, tradizioa eta horrekiko sentitzen den lotura, edota hori bera hausteko beharra eta horrek sortzen duen talka.

Nolako Orio nahi dugu?

Hortaz, irakurtzera zoazena zure herrikideen hitzen baitan osatutako narrazio bat da. Ditugun korapilo, gatazka, aukera, gogo, desira eta konpromisoak zintzoki adierazi dituzte eta gu ere zintzoki jasotzen saiatu gara. Atzean, herri hau berdinzaleagoa, anitzagoa, askeagoa, denontzako bizigarria egiteko ale bat jartzea beste helbururik ez dago.

Irekitasunez irakurtzeko gonbita egiten dizugu, parte-hartzaile guztiek erakutsi duten eskuzabaltasun berarekin.

02

HEZKUNTZA



02 HEZKUNTZA

Esango nuke ikastetxeak direla leku bakarrak, ofizialki-edo, hezkidetzaren inguruan zeozer egiten saiatzen direnak.

HEZKUNTZA FORMALA



IBILBIDEA

Ibilbide honen hasieran, argi genuen lehen jo-puntua hezkuntza formala izango zela. Batetik, ikastetxeak izan direlako historikoki hezkidetzatza landu duten esparru aktiboenak eta, bestetik, aurrera begirako azterketaren herri-mailako enfokea haiekin kontrastatu nahi genuelako. Bi ikastetxeek argi erakutsi zuten haien kokapena.

«Bi ikastetxeen artean holako zera berdina daukagu: bien sentsazioa beti izan da egin egiten dugula, baina beti fokua daukagula gure gain, ikastetxeen gain, eta guk ja gehiago ezin dugula egin; tira, bai, beti egin daiteke, baina honek eragina herrian izan behar badu eta Oriok

herri hezitzailea izan behar baldin badu, beste eragile batzuetan ere landu beharko da gaia»

«Honek izan behar du herri mailako lanketa bat, herriko beharra delako»

Errealitate horrek hainbat gako eman zizkigun. Batetik, eskolek ere partekatzen zutela herri-hezkidetzaren ikuspuntu zabalago hori; eta, bestetik, eskolek bakarrik egiten zuten lanketak muga eta ezin batzuk zituela.



Berdintasunaren lanketan, bakardade-sentsazio horri eta ardura guztia haiengan izatearen bizipen horri kontrajarritz, ordea, nabaritu dugu herri-mailako beste eragileek eskoletako lanari egiten dioten aitortza. Izan ere, hainbaten ahotatik jaso dugu kontziente direla eskolak direla berdintasun-balioei lotutako transmisioan lan aktiboa egin duten ia bakarrak; batez ere, gazteekin.

*«Esango nuke ikastetxeak direla leku bakarrak, ofizialki-
edo, hezkidetzaren inguruan zeozer egiten saiatzen
direnak»*

*«Azkenean, lan egiten dutelako txikitxoenekin,
gaztetxoenekin»*

Eta hala da, izan ere, bai Zaraguetan eta bai Ikastolan, ibilbide luze eta oparoa dute gai honen inguruan, baita inplikazioa ere. Adibidez, Zaraguetan sei urte da berdintasun-plana dutela eta, gainera, hiru aldiz berriro dute errealitatera egokitzen joateko Hor bildu dira hezkidetzari lotutako lanketak: espazioen erabileraren behaketak, testuliburuaren errebisioa, ikasle eta irakasleen formakuntza...

Ikastolak ere eginga du bere bidea: hasiera batean irakasle boluntarioen gain erortzen zen ardura bat berdintasun-plan bilakatu zen 2020an eta hortik abiatu zuten lanketa egituratuago bat, baina baita proba, ardura-banaketa eta dedikazio-modu desberdinak ere. Formakuntzak ere hainbat izan dira edota ikastetxeko egituren eraldatzea (komunak unisex bihurtzea, esaterako) irakasle zein ikasleentzat.

Bi eskolek, agenda feministak proposatzen duen gisan, oinarri dituzte Martxoaren 8a, Azaroaren 25a eta, berriki, baita Maiatzaren 17a ere. Data horiek oraindik baliagarriak dira lanketak egiteko, baina hor ere egokitzapenak egin behar izan dituzte. Izan ere, ikasle eta irakasleen artean motibazio falta ere sumatu izan dute sarri. Batzuetan, gaiarekiko eta, beste batzuetan, gaia emateko moduarekiko.

«Nazka-nazka eginda daude ikasleak fitxekin, lanketekin... ez dira inplikutzen. Nekatuta bezala»

Horregatik hasi ziren Zaraguetan, adibidez, egun puntualen bueltan aste bateko edo bi asteko lanketak egiten, edota Ikastolan, egun puntuala landu beharrean, hiruhilekoka eta ikasgai guztien bidez gaia lantzen.

Beraz, esan daiteke bi ikastetxeek irakurketa bera egiten dutela. Batetik, hezkidetzak eta lanketek etengabeko egokitzapena eskatzen dutela, eta, bestetik, egun puntualak lagungarriak direla lanketak abiatzeko, baina ezin dutela horretara mugatu.

Bestalde, bide bat irekitze moduan, ibilbide laburragoa duen LGBTIQ+fobiaren kontrako egunak, Maiatzaren 17ak, aukera berezia eman die bi ikastetxeei lanketa bateratua egiteko eta, positiboki baloratzen dituzte elkarlanean egindako esperientziak.



METODOLOGIA-ALDAKETAK

Beraz, aurreikusi daitekeen bezala, metodologiaren egokitzapen eta aldaketa-fase batean sartuta daude ikastetxeak, hain zuzen, aurreko metodoa agortuta dagoela iritzi dutelako.

«Ikusten genuen hori ere pixka bat agortuta zegoela, baina nondik hasi?»

«Urtero zerbait eduki arren, ez dago logika jakin batekin antolatuta; pixka bat txanpinoien tankerakoa da. Igual historikoki horrela egiten hasi ginen, eta inertziak jarraitu du horrela»

«Berek, gainera, antzeman egiten dute eta ikusi dugu, DBHn gehienbat, gero kontrako efektua bakarrik lortzen dugula horrekin»

Orduan, aldaketa beharra eta saiakera hor dago, baina kontziente ere badira, ikasle zein irakasle, aldaketa horiek egiteko dituzten mugez, edota, batez ere, praktikara eramateko orduan dauden baldintzez. Batetik, denboraren muga dago eta, bestetik, gaiari ematen zaion lehentasun edo garrantzia.

«Paperean hor daukagu. Nik uste askotan dela... nahia bai, baina... ezina gehiago, hor daukagun guzti horri heltzeko»

Egun seinalatueta itzuliz, hor ikusten dira etengabeko egokitzapen eta aldaketen beharrak. Esaterako, Martxoaren 8an, aurreko formatuarekin nekatuta, egokitzapen bat proposatu zuten Zaraguetan: irakasle bakoitzak bere erara, fitxa eta material itxietatik at lantzeko proposamena.



«Martxoaren 8an egin zen eta irakasleek ere gustura hartu zuten, ze, bestela, karga bezala bizi dute eta hori bai ez dugula nahi»

Ikastolan, aldiz, hizkuntzaren erabilera sexistarekin lanketa berezia egin dute aurten eta, lanketa hori egiteko, ikasleek berek modu praktikoa egin behar izan dituzte behaketa eta datu-bilketak. Horrek, aktiboki lanketa egiten jartzeaz gain, ondorioetara haiek iristea ekarri du eta eragingarria izan da, baita inplikazio aldetik ere.

Beraz, ezinbestean, bi eskolek metodologiaren saiakera eta egokitzapen etengabea ari dira lanketa hauek zentzua izaten jarraitu eta eraginkorrak izan daitezen.

Indarkeria matxista

Bada gai bat, ordea, garrantzia eta inpaktu berezia hartu duena herrian, baita eskoletan lantzeko orduan ere. Hain zuzen ere, indarkeria matxista da gai hori eta Lourdesen erailketak¹ bereziki markatutakoa da. Hala ere, kanpo-begiradatik behintzat, eskolek egindako lana azpimarratzen da askotan.

«Hor lanketa handia egin da ikastetxeetan, nik uste. Uste dut generoaren lanketa gehiago sartzen dutela egunerokotasunean»

Argi dago, erailketaren lanketan, herriko hainbat eragile, espazio, udal eta abarrek bezala, ikastetxeek ere paper berezia jokatu zutela, baina egia da, baita ere, nahasmendu handiko gaia bilakatu dela askorentzat. Izan ere, hain gertu eta ezagutza zuzena dugun jazoera baten aurrean, zaila da

¹ Lourdes del Hoyo, 2023ko maiatzaren 16an erail zuen bikotekide ohiak Arrantzaletan kaleko parkearen aurrean, tiroz.

egiturazko indarkeria matxista batetik soilik irakurketa egitea, beste hainbat elementu gurutzatzen direlako: harreman pertsonalak, sozialak, minak, beldurak, errespetatu nahiak...

Hala ere, presentzia eta memoria oinarri hartuta, lanketa mantendu eta gauzatzen dute, esaterako, Azaroaren 25ean.

«Iaz, guraso elkarteak lagunduta, Lourdesen omenez eskolako pareta bat margotu zen eta aurten aprobetxatuko da bertan elkarretaratzea egiteko. Ikasle boluntarioek prestatu dute testua»



Ikasle boluntarioena da bi ikastetxeetan fruituak ematen ari den beste gakoetako bat. Izan ere, azken bi urteetan, bi ikastetxeetan talde moreak sortu dira; biak, hasiera batean, Saregileko ekimen bati lotuta eta, ondoren, fase eta modu desberdinetan eskoletan errotu direnak. Adibidez, Zaraguetan, aurten sortu da espazio feminista hori eta neska talde horretatik atera da aurrez aipatu berri den Azaroaren 25a antolatzekeo beharra eta baita edukia ere.

«Neskek eskolan bizitako eraso matxistak izendatu dituzte eta zerrenda horrekin kartelak egin dituzte eta ekitaldian ere irakurriko dituzte»

Azaroaren 25eko lanketa hori, aurten, eskola-eremura mugatu da. Goizez gaia jorratu dute eskolan eta, arratsaldean, ikasleak herriko manifestaziora bultzatu dituzte.

«Azaroaren 25ean lehen egiten zen, Urola Kostatik proposatuta, herri mailako elkarretaratze bat eguerdian eta beste bat iluntzean. Aurten pentsatu zen iluntzekoa indartzea garrantzitsuagoa zela eta, eguerdian, eskola bakoitzak bere aldetik egitea»

Kanpotik, ordea, erabaki hori ez delako ulertu edo jakin, ikastetxeen falta sumatu da eta espazio publikoaren galera bat bezala irakurri da.

«Gatoz azaroaren 25etik eta ikastetxeetako lanketa izan da oso txikia; txikia esango dut, ezer ez dela egin ez esateagatik. Eta orain dela bi urte eduki genuen manifestazio handitik pasatu gara ikastetxeetako presentziarik gabeko manifestazio batera»

«Ikastetxeek beren eremuen barruan egitea erabaki dute, babesteko-edo, eta iruditzen zait egin diogula kontzesio bat matxismoari»

Batzuek, ikastetxeen parte-hartze masibo hori modu hain positiboan irakurtzen zuten artean, ikasleek hau pentsatzen dute:

«Orain arte egiten zena zen plazara joan eta pregoi bat entzun, egiten zutena lau ikaslek eta alkateak, eta listo. Baina jendeak ez zuen kasurik egiten... jai izatea bezala zen»

Eta, bestalde, eskoletan egindako lanketen artean ere desoreka nabari dute ikasleek.

«Eta ikastolak esan zuen hola ezetz, baina gero ikastolan ez da ezer egin, adibidez, A25ean. Zaraguetakoek manifestazio bat bezala egin zuten eta niri pena eman zidan ze pentsatu nuen “Joe! Begira zer ondo! Egin dute zerbait eta guk ez genuen ezer egin”»

Horrek elkar-truke eta koordinazioaren beharra azaleratzen du eta baita egun seinalatuen bueltan egingo diren ekimenen inguruko gidaritzaren norbaitek eramatea ere. Aurrerago ikusiko

baitugu nahasmen horrek beste hainbat arlori ere eragiten diola.



KOORDINAZIOA

Argi dago eskolen arteko eta ikasle-irakasleen arteko koordinazioa ezinbestekoa dela edozein egitasmo aurrera eramateko; esaterako, egun seinalatuen antolakuntzari dagokionez. Are gehiago, hezkidetza-arloan, zer eta hainbeste aldaketa eta egokitzapen, korapilo berri, kezka konpartitu eta erronkari aurre egitea tokatzen denean.

2024tik bada koordinazio horretan pausu kualitatibo bat ematen lagundu duen elkargune bat: Hezkidetza Mahaia. Bertan, bi eskolek, Txurumuskik, Udalak, teknikariek, Saregilek eta, sarri, kontu zehatzen bat bada, bestelako eragileek ere parte hartzen dute.

Bertaratzen diren guztientzat ezinbesteko espazio bilakatu da.

«Bai, funtzionatzen du eta horrekin oso pozik gaude»

Funtzionatze horren barruan hainbat gauza hartzen dira kontuan, baina, batik bat, elkarren berri izateaz gain, gai berak modu bertsuan lantzeko saiakera egiten ari da eta, baita, egindakoa sistematizatu eta hurrengo urteetarako gordetzen ere. Adibidez, iazko LGTBIfobiaren aurkako eguneko jarduera eta materialak elkarrekin landu ziren eta hurrengo urterako gorde. Funtzionatu zuenez, aurrera begira ere jarraitzeko asmoa dago.

«Datorren kurtsoan Martxoaren 8koa prestatuko da»



Eta bide horren abiapuntua ez da soilik iazko esperientzia hori, baizik-eta ikasleek, irakasleek eta kanpo-eragileek argi ikusten duten behar bati erantzuten dio.

«Bizkarrezur argi bat behar dugu: zer landu, zein mailatan eta ikastolarekin koordinazioan»

Egun, hezkidetza-programen edota barne- zein kanpo-lanketetan, sarri, nahasi egiten dira formakuntzak eta etapa bakoitzean jasotzen dena, batzuetan edukiak errepikatuz ere. Sexu-heziketa, indarkeria matxistaren prebentzioa, aniztasuna, LGTBIQ+ gaiak... Horiek guztiak logika baten barruan landu behar direla iritzi dute baita eskolatik kanpoko eragileek ere.

«Hezkidetzaz ari baldin bagara eta hezteaz ari baldin bagara, eduki beharko genuke denok, nolabait, lan-ildo minimo bat. Aber... bakoitzak ahal duena eta ahal duen moduan egingo du, baina esan nahi dudana da denok, behintzat, mezu berarekin joaten baldin bagara, ba, hobeto»

Beraz, koordinazio hori indartzea ezinbestekoa dela uste dute, koordinazioa modu askotan egin daitekeen arren: eskolen artean, udalarekin, beste eragileekin... Horrek ondorio zuzenak dakartza: bateratuta joatea, sintonian, eta arazoak identifikatzea. Bestalde, espazioak ezagutzea dakar, Saregileko lana ikasleengana heltzea, adibidez, eta ikasle horiek, era berean, beren ikastetxeetako eragile bilakatzea.

Azken horri tiraka eta aurrez aipatutako esperientziari jarraiki, badago jada fruituak eman dituen koordinazio eta elkarlanaren ondorio garbi bat: eskoletan neska gazteek beren kasara biltzeko beharra izatea eta, gainera, lanketa feministak egiteko prest egotea. Horren muina, hain zuzen, Saregiletik abiatutako

egitasmo bat da, zehazki, eskoletan aurkezpen bat egin eta Saregilera inguratu ahal izateko bidea erraztea helburu duena.

«Emakumeen Etxekoak etortzen dira iaztik, kurtso hasieran, DBH3 eta DBH4koekin lanketa egitea eta Saregilen jarraitzen du gero lanketak»

Zaraguetaren kasuan, Saregilera bideratutako lanketa horren ondorioz, ikasleek eskolan espazio propio bat izatea eskatu zuten. Aurten 20 neska inguru batzen aritu dira (86 ikasle dituen DBH batean).

«Eta garrantzitsuena: beraiei atera zaie, haiek eskatu dute»

Ikasleek ere hala bizi izan dute, beren eskaria izan dela, baina eskolak egoki eta babesa eman ez erantzun duela eta horrek, nolabait, kontsolidaziorako bidea ere egiten du.

«Egia da guk Zaraguetan eduki dugula A25ean apoio hori, bai irakasleen aldetik eta baita ikasleen aldetik ere, eta horrek motibatzen du»

Kanpo-begiradatik ere ezagutzen da egitasmoa eta, sarri, begi onez ikusten da.

«Ikastolako eta Zaraguetako ikasle askok badakit gauzak egiten dituztela. Batzuren mobilizazio-indar hori pizten dela badakit eta, gero, Saregileko ikasle edo erabiltzaile dira. Nik uste behar hori daukatela beren premia eta kezka lantzeko eta eskolatik bideratzen dituzte»

Ikastolaren kasuan, aurreko urtetik zetorren taldeak gorabehera batzuk izan dituen arren, aurtengo Martxoaren 8aren bueltan ikasle horiek izan dute oraindik antolatzeko gaitasuna, nahiz modu apalago batean.





KORAPILOAK ETA AUKERAK

Historikoki egindako lanketetan, beraz, bidean egokitu, ikasi eta beharrak identifikatzen joan dira irakasle eta ikasleak eta, argi dago, faktore desberdinek bultzatuta, ikastetxeetako errealitateak aldatu egin direla. Gaur egun hauek dira aurrean dituzten erronka nagusiak:

Hezkidetza-programen formatuaren agortzea

Argi dute orain arteko formatuak aldaketa bat behar duela, edukiez gain, ikasleekin konektatzeko orduan hutsuneak ikusten dituztelako.

«Helburua da programazioetan egotea hezkidetza, ez hiru egun puntualetan partxeo bat bezala. Ikasleentzat ez dadila izan “Jai hartu dugu bi ordu”»

Irakasleak ere, sarri, kontziente dira ez dutela asmatzen, baina, aldi berean, ikasleekin ere ez dutela kontrastatu haien iritzia, zerk funtzionatzen duen, zerk ez, zer nahiko luketen...

«Ez dakit asmatzen ari garen ematen den mezuarekin eta formatuarekin edo... hainbeste hitz egiten da eskoletan-eta... Egiten dituzte berdintasunaren aldeko inizatibak eta gauzak, baina badirudi ez daudela onda berdinean egiten dena eta gazteek eta umeek bizi dutena... Dago dena logika batean gure gazteak matxismoan perpetuatzeko»

«Egia da ez diegula inoiz DBHn ikasleei galdetu ea jasotzen duten kanpo-formakuntzaz zein iritzi duten»

Ikasleek, ordea, badute iritzirik, besteak beste, hurrengo korapiloari bide ematen dion gaia azaleratzen duena.

«Nire ustez, gaizki dago enfokatuta. Uste dut fokua gehiegi jarrita dagoela neskengan eta horrek ardura guztia berengan uzten du. Nahi duzun autodefentsa guztia egingo dugu, baina mutilak ez badituzu inplikatzeko feminismoan, azkenean gauza berdinean bukatuko duzu. Eta nik uste dut hor, mutilak inplikatzeke lan horretan, igual ez direla ari ondo egiten»



Maskulinitate hegemonikoaren indartze eta erreakzio bat

Sentsazio orokor batetik konstatazio baterako pausua eman da gai honen inguruan. Hain zuzen, eduki feminista edota berdinzaleak ikasle mutilekin lantzea gero eta gogorragoa da, defentsa-postura ez ezik, kontrakotasun eraiki bat garatu delako oso denbora gutxian, baita jarrera erasokorrek ere.

«Mutil askok bizi dute eraso bat bezala»

«Nire ustez, ez dira ari ondo egiten, ez dira ari helburua lortzen. Berdintasuna da helburua. Nik kalean entzuten dudana da mutilengan erretxazoa ari direla sortzen»

«Denok esaten dugu ikasleak gero eta txuloago, gero eta zailagoa dela klaseak ematea eta nik uste dut badela garaia arlo horri benetako garrantzia eta espazioa emateko»

Kezka horrek, eta kontrakotasun-jarrera horien aurrean, zuzenean mutilekin lanketa hauek nola egin pentsatzera garamatza.

«Talde morea sortzean, haien dudak ere sortu ziren. Lankide batzuek ez zuten ikusten bakarrik neskak etortzea. Eta zein zen kezka? Ba, mutilak igual ari direla desatxikitzen gai hauekin eta biktima postura bat hartzen; orduan hor, duda: elkarbizitza indartzea eta lantzea berekin batera edo zer?»

Izan ere, badaude esperientzia edo aukerak, non funtzionatu duten lanketa batzuk. Adibidez, Ikastolaren kasuan, aurreko Azaroaren 25eko leloak bide egin zien hainbat gaitara heltzeko.

«“Konponbidea ez bazara, arazoa zara” leloa oso baliagarria izan da lanketak egin ahal izateko neska zein mutilekin, baina, batez ere, mutilekin, posizionatzen laguntzen zielako eta, orduan, paper aktibo bat bezala zuten»

Hala ere, kezka orokortu bat da irakasle eta ikasleen artean, kontrako jarrerez gain, egiturazkoak diren jarrerak ere badaudelako, bereziki, espazioaren erabilera (patio, ikasgela, pasilloak...), zarata eta ahotsaren monopolizazioa... Eta horiek guztiak lanketa sakonago bat behar dutela argi dute.

Irakasleen formakuntza ezinbestekoa

Hezkidetza lantzea eta programak berrikustea ezinbestekoa den heinean, ikastetxeek ere argi dute irakasleen inplikazio eta formakuntzarik gabe, lanketa horiek ikasleengan bakarrik zentratuz, ez dutela eraginkortasunik izango.

Baina kontuan izan behar dugu klaustro guztietan guztiek ere ez dutela iritzi bera berdintasunari dagokionez eta, ikasleekin gertatzen den bezala, irakasle (ia beti gizonen) artean ere, erresistentzia eta erreakzionarismo-jarrerak topatzen ditugula.

Horregatik, ezinbestekoa da formakuntza etengabea izatea eta, batez ere, ondoren ikasgeletan gaia lantzeko trebakuntza eta gaitasunak garatzea.

«Adibidez, eraso matxisten inguruko identifikazioa lantzen jarraitu behar dugu. Euri-tanta bezala, klaustro guztiak egon behar du hor, eta, gainera, denek onartu behar dute formakuntza»

Eta, bestalde, lanketa horiekin ari direnek klaustroko egoera ere aldatu dela iritzi dute, batez ere nahitaezko formakuntzei dagokienez.

«Lehen kexatzen ziren; orain, behintzat, isildu egiten dira»

Irakasle bezala ere, badago beste muga bat eta da eskola barneko zein munduarekiko dagoen distantzia edo diferentzia.

«Guri ere kostatu egiten zaigu, ze igual hemen mezu batzuk ematen ditugu, baina gero errealitatea ez da inondik inora hori»

Eta hor kontziente dira mugikorren erabilerak, adibidez, desabantaila nabarian kokatzen dituela eskolako lanketak.

«Badakigu eskola beti dela konpensazio-lana egiten duena, baina ja konpentsazio-lana, sare sozialetatik sartzen ari dena... mundu mailako inputak jasotzen ari dira eta guk gero hor egin dezakegun konpentsazioa...»



Lehenago errezagoa zen, baina orain da hain-hain leiho handia eta irekia, ba, kosta egiten da edozer lantzen»

Espazio moreen gorabeherak

Jada funtzionamenduan eta Saregilerekin koordinazioan dauden programak mantentzea garrantzitsua da, batez ere ikasleek azaltzen duten interesagatik. Baina zaila da espazio horiek egonkor mantentzea ere.

«laz funtzionatzen zuen: igual pankartak egiteko proposatu eta 15 lagun. Baina asko DBH2koak, eta aurten... Igual Saregilerekin koordinazioa behar da potentzialitatea non dagoen esateko»

Izan ere, parte-hartzaileen kopurua jaitsi da kasu batean, baina badira oraindik parte hartzen dutenak eta hor, Ikastolaren babesa eta konexioa ezinbestekotzat jotzen dute, ikasle gutxi izanda ere haien egitasmoak aurrera eramateko.

«Ikastolan ja ez ditugu ekintza asko egiten. Aurten, adibidez, A25a ez genuen egin. Teorian guk antolatu behar genuen baina biren artean ezin dugu. Saiatu ginen, kartelak jarri genituen eta pankarta bat egin genuen, baina sin mas. Hasieran joan ginen gelaz gela, baina ez genuen ezer egin»

«Ikastolak ere ez zigun ia lagundu. Izan zen: egin nahi duzuen eta, klaro, ba, bi pertsona bakarrik egonda 400 ikaslerentzat zeozer egiten, ba, ez...»

Zein da neskek beren burua feminista gisa identifikatzetik eta Saregilerekin harremanetan egotetik eten hori ematera

pasatzearen arrazoia? Zer gertatu da? Irakasleek argi ikusi dute: azken urtean herri mailako beste gatazka batzuk medio, bat-batean ikasleen (batez ere, mutilen) aldetik, feminismoarekiko eta, bereziki, Saregilerekiko iritzia aldatu egin da. Horrek, ezinbestean, bestela interesa edukiko luketen neskei ere eragin die, batez ere beren iritzi propioan zein besteen aurrean ez markatzeko garaian ere. Eta, hala ere, pausua ematen duten neskek argi dute zer jasotzen duten bueltan:

«Gainera, gehitu horri zure kintako mutil cromagnonek komentarioak egiten dituztela zutaz: bollera eta hola deitzen guri pasilloetan»



Gurasoen inplikazio desorekatua

Azkenik, lanketa horietan guztietan ezinbestekoa den beste oin bat geratzen da, gurasoena. Kontuan izan behar dugu gurasoak funtsezkoak direla balioen transmisiorako, eta, sarri, esaten dugunak baino, egiten dugunak eta seme-alabek ikusten dutenak eragiten duela zuzenean.

«Klaro, ze gu umeetan zentratzen gara asko, eta umeen heziketa, askotan, eskolei botatzen diegu, baina gurasoak ere arduradun gara eta hor ez dugu eragiten eta guk badaukagu hor eragin-esparru bat berengana iristeko»

Eskoletako datuek argi diote oraindik: amak aitzak baino askoz gehiago joaten dira bilera eta abarretara. Nabarmendu dute, baita ere, guraso gazteagoetan aldaketa nabaritzen dela, baina ez aitek leku hori hartzen dutelako, baizik-eta biak etortzen

direlako. DBHn, adibidez, behartu egiten da. Beraz, gaur egun, haurraren ardura hartzen duten gizonak minoria bat dira.

Arrazoi ugari egon daitezke, gaur egun, guraso, tutore edo familien inplikazioan gorabeherak egoteko; adibidez, kontziliazio arazoan oso jakitun dira irakasleak ere, baina, sarri, errealtateak egiturazkoa den beste adibide bat jartzen die muturren aurrean.

«Ordutegi berean ikastolako bilera bat egiten duzu eta denak amak etortzen dira eta, Orioko Futbol Taldeak antolatzen du, ordutegi berberean, eta denak aitak joaten dira. Orduan, ahal dute!»



ONDORIOAK

Aurreko guztia kontuan izanik, ezinbestekoa da metodologia eta esku-hartze ereduak aldatzea, batetik, nekea nagusitzen ari delako eta, bestetik, aurkakotasunak horren bueltan artikulatzen ari direlako.

Horretarako eman beharreko urrats kualitatibo hori ezin da ulertu orain arte bezala, hau da, modu puntualean eta ikasleei soilik begiratuak diren kanpo-agenteen esku-hartze moduan, baizik-eta, hezkuntza-komunitate osoa inplikatuak diren koordinazio, sistematizazio eta plan integral moduan, ulertuta ikasketa- eta kontzientziazio-prozesuak kolektiboak direla, ardurak bezain-beste, eta agente guztiei dagokiela ikasi, moldatu, hausnartu eta aldatzea, ez soilik ikasleei.

HEZKUNTZA EZ-FORMALA



KOKAPENA



Hezkuntzaz ari garenean, ia beti ikastetxeetan egiten den irakaskuntza-lanera mugatzen da gure iruditeria, baina jakina da hezkuntzak arlo askotan eragiten duela; horietako bat ez-formala izendatzen duguna da.

Kasu honetan, bi eragilerengana inguratu gara batik bat, herriko beste norbanako zein eragilek biek egiten duten lana bereziki nabarmendu dutelako eta berdintasun-balioen transmisioan potentzialitate eta aukera handiko esparru gisa identifikatzen dituztelako: Txurrumuski Aisialdi Taldea eta Musika Eskola.

Lehenengoaren kasuan, argi jartzen da balioan egiten duten lana eta, gainera, aurrez aipatutako koordinazio-guneak partekatzeak ere ematen du egiten dutenaren gaineko ezagutza handiagoa.

«Uste dut aisialdi-taldeak ere lan handia egiten duela eta hezkidetza-foroan ere badaude eta kontzienteki, hor behintzat, lanketa horretan badabiltza»

«Niretzat Txurrumuski bat izan daiteke espazio bat transmisio hori egin dezakeena; ez dakit lortzen duen»

Berek ere argi dituzte beren jardun eta transmisioan ezinbestekoak diren oinarri batzuk. Besteak beste, talde izaera, elkarren zaintza, errespetua, komunikazioa eta haurren eredu onak izatea dituzte helburu. Azken hori lortzeko, ezinbestekoa iruditzen zaie, begiraleen arteko harremanak berdintasunean ematea, alegia, “zer ikusi hura ikasi” logikari jarraiki, eredu ematen lehenak izaten saiatzen dira.

Hala ere, kontziente dira horrek berak dituen mugez, izan ere, txanponaren beste aldean, elkartean bertan genero-desoreka handiak daudela diote.

Musika Eskolaren kasuan, ordea, zuzendaritza emakume batena da eta irakasle emakume gehiago badira ere, ez da berariaz hartutako erabaki edo neurri baten ondorio.

«Emakumezkoak gara gehienak, baina ez dagoelako gehiago. Ez da bila goazelako, emakumezkoak izan behar dute edo gizonezkoek izan behar dute edo orain tokatzen da hau. Keba!»

Hala ere, Musika Eskolan egiten diren lanketetan berdintasunari lotutako ikuspuntua fintzen ere joan dira.

«Gero eta gehiago hartzen dituzu kontuan gauza gehiago: kanten letrak, esaterako... kontuz! Nik uste dut eragileek eta hori dena kontuan hartzen dutela»

Interes berezikoa da Musika Eskolako erabiltzaileen datuei erreparatzea eta, batez ere, adinean gora duen eboluzioa aztertzea.

Irakasleak		Ikasleak	
Guztira	13	Guztira	360
Emakumeak	8	Neskak	242
Gizonak	5	Mutilak	118
		4-6 urtera	Neskak: 39
			Mutilak: 22
		7tik aurrera	Neskak: 143
			Mutilak: 68
		12tik gora	Neskak: 60
			Mutilak: 28



Hala ere, landu gabeko potentzialitate bat ere ikusten da Musika Eskolan. Hain zuzen, konturatu direlako, Udalak ahalbidetutako hainbeste arlo eta mahaitan parte hartzera deituta egon direnean, zenbat arlo eta ertz ukitzen dituen beren jardunak.

«Konturatzen zara Musika Eskola dela puntu bat non dena biltzen dugun nahi gabe»

Alegia, herriko beste espazio batzuetan sarri banatuta gertatzen diren gatazka, talka edo bestelako gurutzaketetako hainbat gertatzen direla Musika Eskolan ere, eta oso modu konkretuan. Akaso, gatazketan soilik ez, fokua aukeretan jartzea merezi du.

«Nik uste dut musika dela modu bat errazten duena denak nahastea eta elkartzea»



KORAPILOAK ETA AUKERAK

Herrigintza eta boluntariotza

Sarri, hezkuntza ez-formala boluntario-sare edota herrigintzatik sustatzen den jarduera izan ohi da eta, Txurrumuskiri dagokionez ere, hala da zehazki, aisialdi-taldea boluntario-sare handi batek osatzen baitu, denak herriko gazteak.

Txurrumuskirekin egindako lanketan horri buruz galdetuta, ordea, boluntariotza hori positiboki azpimarratzen badute ere, herrigintza kritikotasunetik begiratzen dute: herrigintzan oso jende gutxi dagoela azpimarratzen dute eta dagoen apurra ez dela behar bezala zaindu eta baloratzen.

Balorazio horren gabezia arakatur, jakin nahi izan dugu zergatik zuten bizipen hori, non perzibitzen duten. Oro har, herriko hainbat ekimen antolatzearen pisua sentitzeak sortzen dien ondoeza, jakintzat jotzen dela ardura berena dela eta ez dela sarri ikusarazten horrek sortzen duen lana eta esfortzua. Gainera, jasotzen dituzten komentarioak normalean funtzionatu ez duten gauzen inguruan edo kritikak izaten dira eta hori etsigarria dela diote.

«Nik uste boluntario-lana herrian ez dela baloratzen; hau da: kanpotik ematen duena baino ordu askoz gehiago sartzen dira. Eta horrek desmotibatu egiten zaitu»

Denbora- eta formakuntza-falta

Beste hezkuntzako alorretan ohikoa den gisan, ez-formalean ere, muga nagusia aipatuta, denbora-falta azaldu ohi da. Kasu honetan, ordea, oso modu zehatzean gauzatzen da denbora-falta hori, alegia, beren lana egoki egin ahal izateko, formakuntza ezinbesteko tresna bezala ikusten dute bai Musika Eskolan eta bai Txurrumuskin.

«Hemen, ebidentemente, ez, ez daukagu asignatura posibilitaterik horrelako lanketa bat egiteko. Oxala problema hori edukiko bagenu. 6.000 biztanleko herritxo bat izanda, etortzen dena ongietorria da»

«Nik uste dut irakaslea formatuta egotea klabea dela. Denok daukagu formakuntza musikala, baina inork ez digu erakutsi egunerokotasunean nola... Gaur egun, irakasleak egon behar du eguneratua eta ez bakarrik instrumentuko tekniketan. Hau oso gertuko irakaskuntza bat da; orduan, guk hutsuneak baldin baditugu eta ni naiz lehenengoa, niri gustatuko litzaidake ulertzea begirada zabal hori eta zaila egiten zait ez badut ulertzen eramatea...»

«Nahi nuke ziurtasunez ondo jokatzeko ari naizela jakin; nik uste dut behar dugula formatzea ze ez gara formatuak inor»

Denboraz gain, Txurrumuskin errekurtsio eta leku falta ere aipatzen zuten. Eta, era berean, formakuntzez gain, berek identifikatutako hutsune nagusi bat dute: eraso sexista eta bestelakoak lantzeko protokolo baten falta. Bai gazteekiko, bai beren arteko harremanei lotua.



Koordinazioa

Azkenik, koordinazioaren beharra ere aipatzen zuten. Txurrumuskiren kasuan, Hezkidetza Mahaia ezinbestekoa izan da egiten duten lana ezagutarazteko eta besteek egiten dutena ezagutzeko. Gainera, espazio horretan elkar baloratzen dutela eta egindakoa errekonozitzen zaiela sentitzen dute.


Musika Eskolaren kasuan gauza bera gertatzen da; kasu honetan, faltan bilatzen dute bi eskolekin batera batzea eta ez bakoitzarekin banaka. Baita Txurrumuskirekin ere batzea.



ONDORIOAK

Beraz, aipatu den bezala, hiru gako nagusi azpimarratu nahi genituzke arlo honetan. Batetik, egiten den lan boluntarioari eta inplikazioari errekonozimendua ematea; bestetik, formakuntzaren beharra, intuizio edo asmo onez egiten den horrek oinarri batzuk izan ditzan; azkenik, jada, funtzionamenduan dagoen koordinazio-espazio horiek indartu eta saretzea.

03



HERRIGINTZA ETA KULTUR TRANSMISIOA

03 HERRIGINTZA ETA KULTUR TRANSMISIOA

*Herri honetan mugimenduan
-hau da, Herrigintzan- dagoen jendeak
etiketa bat eta estigmatizazio bat dauka.
Orduan, ni militatzen hasi nintzen hogeitapiku urterekin;
garai hartan, hamasei urterekin, ni de palo.*



KOKAPENA

Atal honetan, herrian garrantzi berezia duten esparru batzuei begira jarriko gara: herrigintza, kultur transmisioa eta tradizioa. Hirurak modu banatuan ulertzea ezinezkoa izan da une askotan, izan ere, herri eta kultur eragileen jarduna, egiteko modua, balioak eta parte-hartze ereduak uneoro elkar gurutzatzen direlako, baita, beste batzuetan, talka egiten dutelako ere.

Badakigu beste hainbat espaziotan ere gertatzen dela kultur eta balioen transmisio informala: tabernetan, espazio publikoan... eta bizipen eta erabilera horiek jaso ditugun arren (eta hor egiteko asko dagoela jakinda), atal honetan, antolatuta dauden espazio eta transmisioetan zentratu gara.

Galdera batzuei jarraituz abiatu genuen hurbilketa. Lehenik, jakin nahi genuen, Orion askoren ahotan agertzen den «herrigintza» kontzeptua nola ulertzen den eta, bestetik, horren bueltan zein korapilo zegoen.

Horretarako, herriko hainbat eragile sozial, talde eta kultur eragilerekin bildu ginen. Batzuk autogestio eta militantziazatik gertuago daudenak, beste batzuk, kultur programazio eta antolakuntzan eta baita, espazio desberdinetan parte hartzen duten (edo parte hartu nahi duten) herritarrek ere. Azkenik, zuzenean udal mailako lana egiten dutenak ere bildu genituen.



NOR DABIL ETA ZERTAN?



Hezkuntza ez-formalaren atalean, batzuek aipatzen zuten jada errekonozimendu falta bat somatzen zutela egiten zen lanagatik, edo, beste era batera esanda, egiten den lan guztia ikusezina ote den sentsazioa zutela.

Atal honetan, harago joan eta dagoen parte-hartzearen inguruan galdetu genien eragileei eta ideia errepikakor bat azaldu zen lehen saio hartan:

«Orio, orokorrean, nahiko herri hila dela uste dut; jendeak ez du parte hartzen. Ez dago aktibitate izugarririk ere politikoki...»

«Herrian parte-hartzea oso nuloa da edozertako»

«Niretzat Orio oso herri tradizional, eztakit, oso-oso antolatugabea izan da, eta begirada horrekin eraikia izan

da, nire ustez. Orduan, niri benetan kostatu egiten zait espazio horiek identifikatzea»

«Inguruan sumatzen dena da jendeak ez duela parte hartzen. Beti pertsona berak daude leku denetan...»

Pertsona berak leku denetan edo hainbatetan egotea asko errepikatu den ideia bat izan da. Baina ez hori bakarrik; harago joanda, betiko horiek egiten dutenaren aurrean, erabiltzaileen jarrera, edo kultur eskaintzekiko erantzunaz galdetu genuen.

«Dena zerbitzutan dago antolatuta, gara oso pasibok bezala, kontsumitzaile pasibok garela eta gazteak ere hala dira»

«Ni oinarriago ere joango nintzateke eta uste dut autogestioa asko kostatzen dela. Nahi dugu eskaintza bat jaso eta joan disfrutatzeraz eta herri honetan hori ikasi dugu historikoki. Ez daukagu autogestio lanik; lau katuk bakarrik»

Hala ere, badabiltza antolakuntza eta herrigintzan hainbat. Horri buruz galdetuta, «betiko lauak» izatearen inguruan, herri mailan duten errekonozimenduaz... oso markatuta dagoen jardun bat bezala identifikatzen dute hainbatek eta horrek ekintzailatza beranduago hasia edo zuzenean etetea ekar dezakeela uste dute.

«Herri honetan mugimenduan —hau da, herrigintzan— dagoen jendeak etiketa bat eta estigmatizazio bat dauka. Orduan, ni militatzen hasi nintzen hogeitapiku urterekin; garai hartan, hamasei urterekin, ni de palo»

«Lehenengo linean-edo dagoen jendea atakatua izaten ari da eta militantzia horrek generazioz generazio egon

behar du, baina horrek hemen, esposizio publiko horrek, arriskuan jartzen zaitu eta gazte asko ari dira transmisio hori mozten. Gazteek ez dute ezer jakin nahi»

«Bai, zenbat eta gutxiago destakatu herrian, hobeto»

Jardunean dauden horiei, dena dela, egiten dutenagatik galdetuta, helburu, balio eta oinarri batzuei tirakako jarduna dela argi dute. Alegia, eragileek eta ekimenen arduradunek argi dute balioen transmisioan dutela indarra, ez dutela eskaintzen soilik aisialdi edo denbora-pasarako programazio bat, bakoitzak bere mezu eta oinarriak zabaltzeko erabiltzen dituela ekimen horiek, izan tradizioak eta ohiturak transmititzea, izan ideia ekologista eta feministak zabaltzea, euskal eta euskarazko kultura sustatzea... Baina, berdintasunaz galdetuta, guztiak daude ados: balio horiek, teorian behintzat, oinarritzakoak dira.

«Eragileok erakusten badugu berdintasunean hezten, asko egingo dugula uste dut»

«Kultur egitaraua hezkidetzako baloreetan oinarrituta dago; kultur eragileen harremanak modu osasuntsuan garatzea ahalbidetu nahi du»

Horri tiraka, badago festen balioen dekalogo² bat ere, askok aipatu eta oinarritzat hartzen dutena.

Balio horiek adostasun orokor bat duten arren, sarri ez dira gauza zehatz bezala ulertzen, edota ez dute bete beharreko kriterio-kategoriarik lortzen. Horregatik, beste espazio batzuetan balio horiek bermatzeko, praktikak berrikusi ere egiten dira edo heldu nahi den horretara heltzeko aldaketak ere gauzatzen dira.

² ERANSKINA Herriko festak antolatzeke balioen multzoa (120.or)



«Orioko gaztetxeak duela urte batzuk eman zuen buelta bat eta zuzendaritzan edo emakumeak sartu zirenetik uste dut konstanteago-edo bihurtu zela gaztetxea eta igual ateak ireki egin ziren. Lehen, igual ziren betiko lau eta, neskak sartu zirenetik antolatzeke lehenengo pauso horretara, bai, iruditzen zait gaztetxea izan dela babesgune bat edo emakumeekin oso aktibo ibili diren leku bat»

Eta horrek guztiak badu beste arlo batzuetan ere bere ondorio eta inpronta.

«Gero eta kontzientzia gehiago dago gaiak hitz egiteko eta lantzeko eta, bide horretan, Orio gero eta feministagoa da. Nik uste dut emakumea gero eta indar gehiago hartzen ari delako dela, gero eta ahaldunduago dago»



KORAPILOAK ETA AUKERAK

Horrek guztiak, nola ez, paperetik eta teorian harago, hainbat korapilo eta talka ere sortu izan ditu. Esaterako, bi eragilek edo gehiagok batera antolatu behar duten zerbaitetan, transmititu nahi diren oinarriak kontrajarri bezala ulertzen badira. Edota, belaunaldi aldaketekin, aurreko balio batzuekiko jarrera-aldaketa bat gertatzen bada. Edo, beste modu batera esanda, balio horien transmisioan ez bada moduekin asmatu.

Hainbat dira herringintzan dauden eragileek identifikatutako korapiloak.

Idea eta balioen transmisioa

Transmisioaren ideia oso garrantzitsua izan da atal hau ulertzeko orduan, izan ere, aurrerago ikusiko ditugun analisirako kasuetan, gatazka handiena hor baitago. Transmisioa bi zentzutan ulertuko dugu: batetik, belaunaldien artekoari dagokiona, (bi norabideetan ematen dena); eta, bestetik, berdinen artean ideia desberdinen (edo sarri, berrien) artekoa.

Belaunaldiei dagokienez, azken urteetako gatazka batzuk agerian utzi dute elkar ulertzea ez dela erraza izan eta, kasu horretan, alde guztiek onartzen dute, nolabait, porrota.

«Gaztetxean daudenak dira, ba... ja gazte-gazteak ere ez dira. Orduan, dago salto generazional handi xamarra eta nik uste askotan hitz egiten dietela beren 30 urteko bizipenetatik eta ondo dago, baina nolabaiteko inposaketa bezala bizi dute»

«Igual ez dugu asmatzen transmisioan edo nola iritsi horraino»

«Badago beldurra ideia horiek espresatzeko edo iritziak emateko, ze kontrako horiek oso zerak dira, errespetua ematen dizu. Gazteen Ahotsan hori pasatzen zen, 20 urteko jendea zen 16 urteko jendearen kontra eta orduan, ba, 16 urteko bati palua ematen dio 22 urteko tipo bati esatea, ba, “ze ari zara egiten?” Eta gero, gainera, zure kontra jartzen dira»

«Nik uste dut, baita ere, ez dugula jakin izan sortzen gazteei begira, berek autonomia batekin eta aukeraketak egiteko gaitasuna edukiko duen espaziorik ez dugu jakin izan sortzen»



Hala ere, belaunaldi-aldaketa horretan, badago bigarren transmisio-talka hori ere, hain zuzen, ideia konkretu batzuen aurreko talka dena. Adibidez, jai-ereduen inguruan, argi erakusten du Gazte Festen bueltan bizitu eta sentitutakoak. Bi transmisioen talka ageri da: belaunaldi artekoa eta, balio eta ideien artekoa.

«Nik hor ere egia da beti pentsatzen dudala Gazte Festak Gaztetxearen ideologiaren inguruan sortutako festak bezala nahi direla egin, baina jendeari ez zaiola hori iritsi eta, orduan, jende asko joaten zela zentzu batean, ba hori, pentsatzen zuelako, ba, kristoren eguna zela eta jendeak egun hori oso-oso ondo pasatzen zuela»

«... eta, orduan, ba, klaro, hor ikusten da zer etortzen den, ze helbururekin, ze intentziorekin... Azkenean, festa horiek sortzeko balioak galdu egiten direla ikusten dugu orduan... eta guri ere ez digu ematen indarra edo gogo»

Hain zuzen, ikerketa honetan atentzio berezia jarri diogu honi, zehazki, berdintasun eta feminismoari lotutako ideiak izan baitira sarri talka eta tentsioa sortu dutenak.

«Aber, nik argi daukat: erretxazoa sortzen dutenak balio begano eta feministak dira»

Feminismo edo berdintasun praktika eta politiketan, oinarritzko neurri bat izan ohi da ikusgarritasunarena eta emakumeen presentzia bermatzeko neurriak aplikatzea. Aski ikertuta dago emakumeek gizonekin alderatuta, plazara, espazio publikora iritsi eta errekonozimendua lortzeko egin behar duten bidean dagoen desberdinkeria eta, baita, gabezia horrek, besteak beste, gainontzeko emakumeentzako sortzen duen erreferentzialtasun eta eredu falta. Gaur egun, beraz, kontsentsu zabala duen irizpidea da emakumeen presentzia

bermatzearena. Bada, ikusi dugu, ideia hori belaunaldien artean ez dela egoki transmititu edo, behintzat, ez dutela barneratu.

«Bai, egia da egiten ari direla, baina, nire ustez, gaizki. Ze, adibidez, festa-batzordean guk proposatzen ditugu batzuk eta jendeak esaten du emakumeen presentzia gehiago behar dela eta ni ados nago, baina berek nahi dituzte ekarri taldeak emakumeak direlako bakarrik eta nik uste dut horrekin ez direla ari lortzen berdintasuna»

«Batzuei iruditzen zaigu jarrera horrekin herrian erretxazoa ari direla sortzen»

«Nik uste dut badela, ba, ez bada naturalki ateratzen neskak ekartzea, ba, bueno, goazen neskak ekartzera... baina ez zaigu naturalki ateratzen eta orduan...»



KASU-AZTERKETA

Beraz, korapilo nagusi horiek identifikatuta, azrerketak iraun duen azken hilabeteetan presentzia eta protagonismo berezia izan duten bi kasuri garrantzia berezia eman nahi diogu. Izan ere, bi kasuetan, aurrez aipatutako balio eta belaunaldien arteko transmisioen gatazkak ikusi dira modu oso agerikoan.

Kasu hauen analisiak, helburu gisa ez du gatazkan gehiago sakontzea, baizik-eta benetan jokoan egon diren elementuak aztertzea eta, batez ere, aurrera begira baliagarriak diren neurri eta prozedurak proposatzea eta, baita ere, gatazkek azaleratutako aukera eta potentzialitateak azpimarratzea.

1. FESTA-BATZORDEA

Prozesu honen hasieratik Festa Batzordea izan da ia elkarrizketa eta lan-saio guztietan agertu den espazio bat. Zehazki, iazko (2024) jaien antolaketan sortutako gatazka eta bizipen bati lotutako aipamenak ziren. Hasiera batean, leku egin bai, baina anekdotikoagoa zen errealitate gisa jaso genuen arren, denborarekin konturatu ginen, herriko beste hainbat dinamika ulertzeko ezinbesteko adibidea zela eta, batez ere, elkar ulertzera eta eraldatzera begira, izugarrizko potentzialitatea zuen afera ere bazela.

Gertakarien aurkezpena

Lehenik, jasotzen dugun informazioa da iazko sanpedrotako festak antolatzeako Festa Batzordean «kriston mobida» egon zela. Alde eta leku guztietatik definitzen ziguten horrela. Eta, modu desberdinetan kontatu ziguten arren, gutxi gorabehera, ondorengo gertakarien deskribapena egitera iritsi ginen: urtero bezala, Festa Batzordea deitu zela. Parte-hartze irekia (eragile zein norbanako) denez, bat-batean, normalean joaten ez den gazte-talde handi bat inguratu zela (batzuen esanetan 80, beste batzuenean 100; gehienak adin txikikoak). Talde hori ez zegoen herrigintzan aktibo, baina egun horretarako, jada, Gazteen Ahotsa izenpean koordinatuta zeuden. Haien esanetan, lehenago saiatsuak ziren haien proposamenak entzunarazten eta, gertatu ez zenez, Gmail eta Instagram kontu baten bidez antolatzea erabaki zuten.

Gazte horiek hainbat proposamen eraman zituzten, baina korapiloa Dj-aren proposamenarekin heldu zen. Haiek Dj konkretu bat nahi zuten eta, beste eragile batzuek (helduagoak, herrigintzan antolatuak), proposamen horri oztopoak jarri zizkioten. Aipatzen zutena zen, batik bat, Dj horrek sortzen zuen giroa ez zela feminista edo berdinzalea (musika-motagatik, adibidez) eta, bestalde, ez zuela bermatzen euskararen presentzia kantu-aukeretan.

Beraz, matizak matiz, hau da, ahalik eta modu objektiboenean gertakaria (jakitun izanik, honen ondoren beste hainbat gertakari egon direla horri lotuta, baina gu Festa Batzordeko gertaeretara mugatu gara). Azken hilabeteetan, gure helburua horren atzean mugitzen ziren min, uste, balio, behar, nahi eta abarrak identifikatzea izan da.



Bizipenak

Kanpotik bizi izan zutenentzat, argi dago, gertaera eta egun horrek, min, gatazka, haustura eta kontrakotasun handiak sortu zituela; baita hainbat interpretazio ere.

«Hurrengo festa-batzordeetan gertatu zenak, ba, pena ematen zuen, ze ziren 17-24 urteko gazte-pila bat elkarren kontran. Eta ikusi dute... 17 urteko gazte horiek izan dituzte kontra eta kontra daude sentitzen direlako inposatuak “Edo zuek bezala pentsatzen dugu edo ez gaituzu onartzen?”»

Lehenengo kanpo-interpretazioa hemen dago, «inposaketa»-ren kontzeptua, gero ere errepikatuko dena.

Hain zuzen, gazteenek eskatzen zuten horri ezezkoa esatea oinarri berdinzale batzuen inposaketa bat bezala irakurtzen dute batzuek. Alegia, «feminismoa edo ezer ere ez», kontsigna errepikatua bezala. Hori azken hilabeteetan forma deberdinetan asko entzungo dugun kontua da: badagoela feminismoarekiko erresistentzia bat.

Beraz, hemen badago lehen talka, transmisio eta ideia berdinzale eta feministen artekoa.

«Herrian entzuten dira komentarioak “Joe! Hauek denbora guztian neskak ekarri nahian, ba, guk mutilen alde egingo dugu”»

Baina hala al da? Hori al da arazo nagusia? Alegia, Dj zehatz bat ekarri nahi izatea eta (inon gehiegi zehaztu gabeko) berdintasun-irizpide batzuk jarraitzen ez dituelako ezeztatzea? Prozesua bizi izan dutenekin izandako elkarrizketetan, harago iristea lortu dugulakoan gaude eta sakoneko arazo edo dinamika batzuen problematizazioa ere heldu da.

Bi kontu azpimarratuko genituzke: batetik, gazteek haien ahotsa entzuna izateko beharra eta nahia dute; eta, bestetik, antolakuntza-ereduen inguruko uste eta aurreiritziek erabat funtzionatu dute. Eta bi gauzak, sarri, nahasita ageri dira.

Lehena, argi dago, haien ahotik esanda.

«Gure ahotsa entzuna izateko aukera bat nahi dugu. Ez digute eman aukera ezertako eta, orduan, ez dute jakingo gure ikuspegia, iniziatiba, zein den...»

Baina «beste aldean» egotea tokatu zaienek ere hausnartu dute horren inguruan eta, hasiera bateko Dj-aren gatazkatik gero eta gehiago urrundu, gazteen beharretara gehiago gerturatzeko ahalegina eta gaitasuna topatu dugu.

«Niretzat izena oso esanguratsua da: Gazteen Ahotsa horrek esaten duena da beste eragileek ez dugula jasotzen ahots hori. Eta adierazi beharra izan dute herriaren aurrean berek ere ahotsa daukatela»

«Nik sentsazioa daukat Gazteen Ahotsa direla gu, gaztetan»

Bestetik, ahots hori plazaratzeko moduek sortu zuten ezinegona: hainbeste gazte azaltzea Festa Batzordean, moduak, antolatzeke eredua, Whatsapp talde bat izatea... Hala ere, aurreko bidetik jarraituta, irakurketak fintzen ere joan dira.

«Gazteen Ahotsaren atzetik antolakuntza badago. Beste gauza bat da gu identifikatzen garen antolakuntza horrekin edo antolakuntza bezala, baina antolatuta badaude»

Eta antolakuntza horren atzean, herrigintzarekin bat egingo duen potentzialitatea ere ikusten hasi dira hainbat.

«Bai, nik ere uste dut badagoela potentziala, hau da, igual 200 gaztetik izango dira 5, baino 5 hoiek, joe, gogo baldin badaukate eta prest baldin badaude, niretzat kristoren altxorra da hori, ez? Eta pixkat... bueno... ba, igual, moduak dira txokatzen dutenak»

«Eta, aber, gainera gu gara lehenak interesatzen zaigunak hauek herrigintzan sartzea, ezta?»



Azkenik, gatazka eta minetatik urrundu eta eraikitzaera begira, gertatutako guztia aukera gisa ikusten duenik ere badago.

*«Momentu klabea da, loturak egin eta eraikitzeke.
Aukera ederra dela uste dut»*

Festa Batzordearen behaketa

Hartara, modu eraikitzaile horri jarraiki, aurtengo Festa Batzordera joateko gonbidapena jaso genuen eta, guretzat, aukera paregabea izan zen funtzionamendua ezagutu eta bertaratutakoen iritziak jasotzeko.

Behaketari dagokionez, 45 bat laguneko bilera izan zen eta han ikusi genuen parte-hartzea errespetuzkoa eta orekatua izan zen. Gainera, azpimarragarria iruditu zitzaigun adin desberdinetako emakumeen parte-hartze handia. Bestalde, edukien inguruan, tradizioa eta eduki berdinzale eta feministen arteko errespetu eta oreka ere ikusi genuen.

Egia da ikusi genuela, bestalde, guztien aurrean hitz egitea dela parte-hartzeko forma nagusia eta batzuen parte-hartzea handia eta jarraitua izan bazen ere, guztiena ez zela hala izan.

Horregatik, galdeketa bat pasa genien hiru arlo zehatzen inguruan guztien ahotsa jasotzeko.

Lehenengo galderan, parte-hartzeko esparru hori segurua edo eroso zen galdegin genien. Oro har, esan hauetan laburbildu daiteke sentrazio orokorra:

«Erosoa, irekia delako. Batzuetan hartzen duen norabidearekin oso deserosoa, ez dagoelako ondo dinamizatuta eta elkarri errespetu-faltak gertatzen dira, inork mozten ez dituenak»

«Segurua bai, eroso ez; errespetu-faltak»

«Deserosoa da balore eta ideologia ezberdinetako norbanako eta kolektiboak biltzen direlako»

«Perfilaren arabera aldatzen da»

«Espazio segurua da gauzak argi dituztenentzat, nahiz eta batzuetan talde batzuen aldetik «inposaketak» gertatzen diren eta zalantzan jartzen dituzten besteen nahiak»

«Bai, eroso eta segurua da. Horrelako euskal herri txiki batean mota askotako jarduerak ospatu litezkeelako jaietan. Denok dugu gure bizimoduko jarduerak ospatzeko edo jendaurrean erakusteko atalen bat jaietan»

«Ez da segurua, arautu gabea eta arriskutsua izan daiteke. Hemen ez dago elkarren zaintzarik, ez errespeturik gure artean. Ahaldundutako pertsona batek bakarrik edukiko du aukera hemen parte hartzeko, eta txikitasun horretan kokatzen direnak egoeratik kanpo geratuko dira»



Bigarren galderan, espazioaz harago, jaiak antolatzeko zuten sistema egokia iruditzen zitzaien edo ez galdetzen genien. Hauek dira agertutako beharrak:

- Beste herrietako sistemak ezagutzea.
- Presentzialki zein modu anonimoan iritzia emateko aukera ematea, izaera guztiek ez dutelako talde dinamika hauetan ongi funtzionatzen.
- Dinamizazioa aldatzea.
- Aurretik jendeak proposamenak egiteko bitartekoak sortzea.
- Gauza berdinei buelta gehiegi. Gai bakarrean zentratzea.
- Denbora oso gutxirekin hasten dira antolatzen.
- Praktikoa eta dinamikoa.
- Batzorde jarraia osatuko nuke, urte osoan lekua izango duena. Festei buelta bat eman nahi badiegu, lanketa sakonagoa eskatzen du, eta denbora; eta baita borondatea ere herritarren eta politikoen aldetik.

Azkenik, diagnostiko honen oinarrian behin eta berriz aipatu dugun balioen transmisioaz galdetu genien. Hain zuzen, zein uste zuten zirela herriko festetan transmititu beharreko balioak:

- Adin guztientzako ekintzak. Egunez ere indartzea, gazte gehiago daudenez eguneko eskaintzari ez zaio nahikoa garrantzirik ematen.

- Herritartasuna errespetatzeko gai izatea, ondare, tradizio eta izaerak mantendu, babestu eta sustatuz. Jakina, ikuspegi berdinzale eta feminista oinarrian, parekidea eta parte-hartzailea, herritik eta herriarekin.
- Feminismoa, denontzat espazio segurua izatea, eraso eta mehatxu gabeak.
- Tradizioa eta eraldaketa.
- Feminista, herritarrak zaintzen dituzten festak.
- Errespetua, elkarbizitza, ohitura, aniztasuna, partaidetza, berdintasuna.
- Usadio zaharrak mantendu, eta gaur egungo gazteen beharrak zaintzen saiatu beharko luke.
- Euskaldunak.

Ondorioak

Gatazka, behaketa eta galdeketaren ondoren, hauek dira, gure ustez, aurrera begira korapiloak askatu eta modu erosoagoan Festa Batzordea ez ezik, herriko dinamiketan lagundu dezaketen gakoak:

- Batzordean parte hartzeko jarrera eta parte-hartze etiko baterako arautegi minimo bat ezarri behar da. Batik bat, elkarrekiko errespetuan eta zaintzan oinarritutako espazio eroso eta segurua izan dadin guztientzat.



- Horretarako, parte-hartze metodologiari edo dinamizazioari buelta bat eman behar zaio. Pentsaera guztietako ahotsak jaso daitezzen eta parte-hartzeko modu bakarra ez dadin izan guztien aurrean ahotsa erabiltzea.
- Azkenik, ikusten dugu ez dagoela halako balioen arteko talkarik, akaso, bakoitzak lehentasuna ematen diela gauza batzuei, baina bestek alde batera utzi gabe. Adibidez, batentzat garrantzitsua da tradizioari eustea, baina ez dago berdintasun edo feminismoaren kontra; eta alderantziz. Beraz, ikusten dugu ez daudela bi bando (edo dena delako) hain urrun eta konpondu ezin.

2. ARRANTZALE-EGUNA

Aurreko kasuari jarraiki, festen antolakuntzaren barruan garrantzi berezia izan duen egun bat ere azaldu da behin baino gehiagotan prozesu honetan. Horregatik, kasu bezala aztertu nahi izan dugu.

Izan ere, bigarren kasu honetan, ez da horrenbeste belaunaldien arteko talka, baizik-eta belaunaldi desberdinetako taldeek proposatzen dituzten eredu eta balioei dagokiena. Beraz, hemen, herrian garrantzi bereziko elementuak nahasten dituen kasu bat dugu, interes berezia sortu ziguna, talkak ulertu eta aletzerakoan.

Zehazki, tradizioa, herri-izaera, belaunaldiartekotasuna, festa, LGTBIQ+ borroka eta, atzean, teloi gisan, Festa Batzordea ere izango dugu.

Gertakarien aurkezpena

Arrantzale Eguna San Pedro jaietan kokatzen den egun bat da, azken hiruzpalau urteetan indar eta garrantzi berezia hartu duena. Egun horrek hainbat helburu ditu, baina, finean, hauxe da asmo nagusia: herrian hain errotuta dagoen arrantzale-izaera eta arrantzaleen bizipenak gaur egunera ekartzea, ospakizun baten bidez. Horretarako, jantzi konkretu batzuk proposatzen dira eta baita hainbat dantza eta ekimen ere.

Egun horren bueltan, gatazka bi elementuren inguruan kokatu dugu: batetik, tradizioaren kontzeptuaren bueltan eta horri egindako kritiketan eta, bestetik, tradizio horri lotutako janzkerek bultzatzen dituzten genero-arauen inguruan. Kontuan hartu behar da, gainera, egunaren ospakizuna LGTBIQ+ Harrotasun egun edo Sexu Askapenaren aldeko egunaren bueltan kokatzen dela, alegia, ekainaren 28aren bueltan (edo, batzuetan, egun berean).



Genero-arauak auzitan

Beste jai eta ospakizun askotan ikusi izan dugun bezala, badira ohiturazko eta tradiziozko ospakizun asko, zeinetan genero-arau bitarrak erreproduzitu edo indartzen diren. Kasu honetan ere, identifikazio hori egin zen hainbat lekutatik, non azpimarratzen den arrantzaleak gizonak direla eta, saregileak emakumeak eta ez ziren biak maila berean balioan jartzen.

«Arrantzaleak, balea... orain ja Bailearen Festan ateratzen dira emakumeak arraunen, baina... gero da egiten duzun festaren ikuspuntua. Arrantzaleei egin bakarrik omenaldiak eta, joe, saregileak ere badaude eta...»

Rolen indartze hori, batzuetan, historikoki lan hori egin duten figuretan eta haien generoa oinarri hartuta indartu izan da.

«Sanpedrotan Arrantzale Eguna egin zenean, arrantzaleak gizonak ziren eta dantza egiten zutenak emakumeak edo sarea josten zutenak. Hori kritikatu egin zen herrian, baina, bueno, iruditzen zait antzerki bat dela, garai hartan egiten zena gogoratuz, eta ez zaiola... Baita ere, iruditzen zait gaur egun denari punta atera behar diogula eta, bueno, orain dela 200 urteko Orio irudikatu nahi bazen, ba, bueno, hori hola egiten da eta punto. Gero, egia da Bailearen Eguna egiten denean, 5 urtetik behin, garai hartan gizonak joan ziren, baina, gaur egun, emakumeak ere joaten dira eta, gaur egun, Orion ez dago problemarik arraunlari bat emakumea joaten bada»

«Hemen arrantzaleak gizonak dira eta saregileak emakumeak dira. Adibide baldin bada. Hala jarraitzen du izaten: ez dut ikusi arrantzale emakumerik eta ezta saregile gizonik ere... Ez dut ikusi horrelakorik oraindik»

«Arrantzale emakumezkoak ez dago Orion. Lanbidez, ez. Normalean, gizonezkoak, arrantza, eta emakumezkoak, jostea»

Genero-rolen indartze hori, gainera, kasu honetan, Udaletik egindako iradokizun batzuekin ere lotu dute hainbatek.

«Hemen Arrantzale Eguna dago aurreko ekainean polemika handia sortu zuena. [...] Ba, adibidez, atera zuten komunikatu bat gizonezkoek nola jantzi behar zuten eta emakumezkoek nola jantzi behar zuten, Udaletik»

Hori, hainbat herritarrentzat, batez ere, genero-rol eta arau horietan eroso ez daudenentzat, mugatzailea izan zen eta, ez soilik, kasu honetan, Udaletik jasotako proposamen horri lotuta, baizik herriaren jarrerari lotuta ere.

«Mobidak egon dira, baita ere, herria oso bitarra delako, rolak beti oso markatuta; pertsona disidente guztiak ez ginen sartzen. Herri honek, azkenean, hori guztia kritikatu edo seinalatu egin du eta herriak ez dauka ikuspegi irekia»

Baina badago, horren guztiaren bueltan, aurreko kasua kontuan hartuta, berriro ere errepikatzen diren elementu batzuk. Batetik, herrigintzan, boluntario moduan egiten den lanaren aitortza falta edota intentzioen eta balioen zalantzan jartze bat eta, bestetik, desadostasunak edo ikuspegi desberdinak adierazteko orduan... komunikazio, koordinazio eta transmisio falta bat.

«Eragile bat delako egun hori antolatzen duena, bolondres pila batekin eta intentzio on guztiarekin. Da festa bat adinartekotasun handia sortzen duena, herria biltzen duena; intentzio horrekin: bengal, goazen biltzera! Genero-ikuspegi hori ez zen landu, ez zen



kontuan eduki. Orduan niri ematen didana, ez dakit... nik sentsibiltate hori baldin badaukat gizona zkoen eta emakumezkoen inguruan, ezin dira komunikatu batean jarri, e? Horrekin kontuz. Jo, ba, ni joango nintzateke berengana eta esan, aber, hobe da hola eta hola jartzea eta horrela denak kontuan hartzen dira. Ni onean joango nintzateke eta txarrera joaten gara»

Tradizioa

Beraz, oinarrian egonezin hori zegoela, hori izendatzeko tradizioa izan zen, beste behin ere, ahotan hartu zena. Horrek genero-rolen zurruntasunei egindako kritikak baino garrantzi handiagoa hartu zuen herri mailan, hasieratik, Orion garrantzia eta pisu berezia duen elementu bat delako.

«“Tradizioak hiltzen gaitu” esan zen. Eta guk pentsatzen dugu, baita ere, tradizioak ematen diola herriari bere esentzia. Eta, orduan, ez dela tradizioa hiltzea helburua, eraldatzea baizik»

Ikusi genuen, tradizio horrekin kritiko azaldu arren, oriotar identitate propioari oso lotuta bizitako zerbait gisan definitzen dutela tradizioa eta, horregatik, atxikimendu bat sentitzen dutela harekiko; beraz, badagoela erresistentzia bat tradizioari kutsu negatibo eta mugatzailea soilik emateko. Are gehiago, tradizioa eraldatzeko irekitasun eta beharra nabari dute, mantentzearen alde.

«Arrantzale Egunak askorako eman zuen... pankarta bat ere jarri zuten “Tradizioak hiltzen gaitu” esaten zuena. Ez nago ados. Tradizioak bere horretan, bai,

hiltzen gaitu, baina niri —eta horrek, bai, ematen dit pena— jende gazte hau datorrena hain ikuspegi zabalarekin... Ni ez naiz kontsideratzen oso heldua, baina nire urteak baditut. Niri ematen didana pena da gazte hauek, barruko hau hain ondo jantzia duten horiek, nola jartzen duten “Tradizioak hiltzen gaitu”. Zuek, hain ondo jantziak zaudetela, izan beharko zenukete gai tradizio horretan berrikuntzak sartzen laguntzeko, ez?»

Beraz, aurreko kasuan bezala, korapilo horrek sortu duen ezinegon eta gatazkan ezezik, jaso genituen irekitasun-proposamenetan jarri nahi izan genuen indarra. Batez ere, ez dadin berriro ere, gatazkaren iturburutik at, aldentze bat sortu.

«Tradizioak ahal dira jarraitu rol horiek guztiz jarraitu gabe»

Ondorioak

- Oro har, ukaezina da behin eta berriz ageri zaigun tradizioaren eta horren aurreko hausturen arteko talka.
- Tradizioa kritikatzeari herri mailan asko penalizatzen den ekintza bat da.
- Hala ere, tradizioari garrantzi berezia ematen dietenek ere badute tradizioa egokitu, gaur egunera ekarri eta eraldatzeko irekitasuna.
- Guztia komunikazio eta koordinazio hobearekin eginda, ziurrenik elkar-gune eta puntuak topatzeko gai dira.





ONDORIOAK

Beraz, luze eta zabal aritu garen atal honetan gatazka eta talkek protagonismo nabarmena izan duten arren, ezinbestean topatu ditugu gatazka horietan bestelako balioen transmisio osasuntsuago bat egiteko gako eta indarguneak.

Batetik, azpimarratu nahi genuke, nahiz sarri autopertzepzioa kontrakoa izan, ikusi dugunagatik, Orio oso herri aktibo eta parte-hartzailea dela. Beharbada, aktibotasun hori ez da gertatzen militantzia klasiko eta historikoen iruditegien baitan, baina masa aktibo bat badago eta garrantzi handia du.

Horri lotuta, kontziente gara parte-hartze eta herrigintza sistema oso lotuta dagoela udal-administrazioarekin eta, horrek autogestiotik eskatze-gestiorako mugimendu sozial bat eraiki dezakeela. Hala ere, oso positiboki baloratzen dugu herri-mugimenduek administrazioarekin duten harreman zuzena.

Bestetik, garrantzi berezia ematen diogu jada kultur arloan eta eragile sozialen artean existitzen diren koordinazio-espazioei behar duten atentzia jartzea. Izan ere, han gertatzen direnak, ia-ia, herri mailako balioen negoziaketak eta kokapenak izango baitira. Hemen, bereziki birpentsatu behar dira Festa Batzordea eta bestelako koordinazio-espazioak.

Gainera, antolakuntzatik at, hausnarketarako eragileen arteko espazioak sortzea ere beharrezkoa da.

Azkenik, tradizioarekiko lotura handia da, eta identitarioa den nolakotasun horri egindako kritikak ere ulergarriak izan daitezke. Baina, aldi berean, tradizioekiko aitortza eta errespetua ere nahiko orokortua da guztien aldetik eta horrek eraldaketa eta kontsentsurako aukerak ematen ditu.

04



HERRITARTASUNA KULTURARTE- KOTASUNETIK ERAIKITZEN

04 HERRITARTASUNA KULTURARTEKOTASUNETIK ERAIKITZEN

*Hay que ser realistas,
esto ya no es un cole de solo personas de aquí,
hay gente de todo el mundo
y hay que integrar todo lo que se pueda
y notamos que se está haciendo ese esfuerzo,
entonces las madres también hacemos un esfuerzo,
porque sientes que cuentan con nosotras.
Entonces doy, porque también recibo.*



KOKAPENA

lkerketa honetan, hasieratik, herri mailan balio berdinzale eta hezkidetzailleen transmisioak non eta nola gertatzen diren (edo ez diren gertatzen) arakutzen aritu gara. Hasieratik aipatu bezala, hezkidetza herri-mailako jardun (potentzial) bezala ulertzen dugu eta, beraz, ohikoak zaizkigun arlo, eragile eta jardunetatik ekin genion: Hezkuntza (formala eta ez-formala), herrigintza eta kultur eragileak. Horren ondoren, ordean, argi ikusi genuen, kultur eragile esaten genuenean edo kultur transmisioaz aritzen ginenean, Orioko herrian nagusi den kultur identitate eta adierazpideen kontzeptuetara mugatzen ari ginela.

Batetik, transmisio horretan partekatzen den kulturaren adierazpidea forma eta irudikapen konkretu bat duen «euskal kultura» da edo, nahi bada, «oriotar kultura». Bestetik, iruditeri eta adierazpide konkretu horien baitan, kultur transmisio hori ere, «euskal oriotarretik euskal oriotarrera» pentsatua eta ulertua zegoela antzeman genuen. Eta «euskal» eta «oriotar» kontzeptu horien eraikuntzan, pentsamendu oso zuri eta koloniala gailentzen zela (atal guztian zehar arduraz presente izaten saiatuko garena).

Eta galdera sortu zitzaigun: oriotar guztiontzat berdina al da Orioko kultura? Zenbat kultur adierazpide kabitzen dira herriko kulturak? Zer gertatzen da, adibidez, migrazio-prozesu baten ostean oriotartu direnen kulturekin? Ez al dira jada bertakoak? Zer transmititzen du herriko kulturak, ohiturak, hizkuntzak? Zein balio? Norengandik eta norentzat transmititzen dugu? Eta, beraz, noren kultura kontuan hartuta eraikitzen dugu herri-identitate eta balio-sorta?

Hori guztia, AEK-ko kideekin egon ginenean hasi zen ernaltzen, hain zuzen, haien ikasleen profilen inguruan galdetuta, gehienak (profil profesionala bilatzen zutenak eta jubilatu ostean euskara berrartu nahi zutenak kenduta) pertsona migranteak (eta, gehienbat emakumeak) zirela adierazi zigutenean.

Horregatik, interes berezikoa izan zen AEK-k egiten duen balio berdinzaleen transmisioa ezagutzea eta, hizkuntzaren bidez, balio horiek Oriora etorritako horiekin lantzean jasotzen dena behatzea.

Beste inflexio-puntu bat, beren seme-alabak Orion eskolatuta dituzten ama musulmanekin biltzea izan zen. Ohartu ginen, bertan, hezkidetza-ikuspegitik lantzeko hainbat gako suertatu zirela. Batetik, kultur transmisioan motz gertazen zitzaigun



kontzeptua zabaltzen lagundu zigun, bestetik, «oriotar» eredu bakarraren iruditeria zabalduarazi zigun eta, azkenik, orain artean bereziki landu ez genuen arlo bat azpimarratu zigun: eskolak eta euskarak herria ulertzeko eta herritartzeko berentzat duen garrantzia.

Azkenik, ezinbestekoa izan zen migrazio-prozesu baten ostean azken urteetan Oriora iritsitako jatorri askotako emakumeekin biltzea, Orio nolako harrera-herri den ezagutzeko.



ATXIKIMENDU ETA HERRITARTZEAK

Elkarriketak hasi genituenean, gure jakinmina ez zegoen zuzenean haien migrazio-prozesuetan, baina segituan konturatu ginen, bizi-proiektua ehundaka (batzuetan milaka) kilometrotara berreraikitze prozesuan, garrantzi berezia duela nork bere bidea, arrazoiak, gogoak, minak eta zailtasunak azaltzeak. Konturatu ginen horrek ezinbesteko pisua zuela gerora Orio edo «oriotartzea» ulertzeko momentuan.

Narrazioetan oso presente egon zen lehen gauza hauxe izan zen: migrazio-bidea guztiek halabeharrez egin behar izan zuten bidaia bat zela. Alegia, arrazoi ekonomiko eta sozialek bultzatutako migrazioa zela, helburu jakin bat zuena: lana bilatzea. Eta, horren atzetik, bigarren azpimarratzen zen gauza, lan-bilaketa horrek herrian ere leku zehatz batean kokatzen dituela: «Nosotras hacemos trabajos que no quieren hacerse aquí». Beraz, Orio nola bizi zuten ulertzeko, ezinbestekoa zela haien buruak hor kokatzea.

Hori argi utzita, herriarekin lehen hartu-emanaren zein izan den jakitea ezinbestekoa zen, alegia, nolako harrera-herria den Orio.

«Para mí, con el respeto de estar aquí en Orio, no fue una buena entrada. Tampoco no tenía a nadie como para tener una situación social muy amplia, ¿no? Entonces, claro, para mí, sin embargo, fue muy distinto en Barcelona, porque allí era como que la gente venía a ti. Llegué en una época muy distinta a la que se vive hoy: a la gente que quería trabajar, en aquella época, le daban trabajo»

«Hay mucha falta de empatía porque este también es un país que emigró»

«A mí, por ejemplo, por ser mujer inmigrante, me ha costado socialmente involucrarme con gente autóctona. Sí que con personas inmigrantes tengo más relación, pero se siente mucho como el rechazo de tu parte. Nosotros somos así en nuestra cuadrilla y, en esa situación, me he sentido bastante sola. Y ahora, bueno, hablo con algunas madres del colegio y esto, pero la mayoría con las que tengo relación somos extranjeras. Y con las que son de Orio como que es una relación muy distanciada. Sí que cuesta bastante y he visto que a los chicos extranjeros les ocurre lo mismo»

«En mi caso, los de fuera éramos contados, todos marroquíes, porque en mi época en el pueblo solo había marroquíes de fuera, cuatro familias contadas»

Gizarte- eta harreman-talka horietatik tiraka, genero-berdintasunaren inguruan, hainbat izan dira bizipenak, horiek ere, jatorri, kultura edo erlijioaren arabera aldakorrak direnak.



Esaterako, batzuek berdintasun-sentsazio handiagoa bizi dute jatorrizko herrialdearekin alderatuta.

«Yo vengo de un país que es muy machista y aquí sí que veo esa igualdad. A mi parecer, eh? Vengo de otra mentalidad y ha sido un cambio para bien»

Beste batzuek, ordea, beren bizipen eta botere-harremanak euskal emakumeen egoerarekin alderatzen dituzte; horrek gerturatze bat ere iradokitzen du.

«Yo vengo de otro lado del mundo donde los hombres una cosa y las mujeres una cosa diferente; y, especialmente, viene de la religión y también viene de la cultura y eso. Nosotros, siempre, la gente mira y, la verdad, me dicen que los hombres tienen más poder y eso, y es la verdad. Yo soy del Sahara y soy del campamento, y no estamos así. Estamos como las vascas. Dicen aquí que las vascas mandan mucho en las casas; nosotras también. Parece que ellos están... pero detrás siempre hay una mujer. Vengo de una cultura en que los hombres un poco más... pero no, siempre estoy gritando y no se qué, así que, bien»

Edozein kasutan, oso argi genuen, aurreko bizipen horiek ezin genituela kultur alderatze faltsu batean kokatu, zeinetan sinestarazten diogun geure buruari, gurea beste batzuen baina gizarte berdinzaleagoa dela. Izan ere, hori hala balitz, ez ginatkeelako diagnostiko hau egiten arituko.

Eskolak, gako

Nolanahi ere, gurekin egon diren emakumeengan badira herritartzeari eta atxikimenduari lotuta ezinbestekoak diren gako batzuk. Lehen eta nabarmenena eskola bera eta eskolarekiko harremana izan da. Zaragueta eskolako gurasoen kasua da eta azterketan oso garrantzitsuak izan diren gako batzuk eman dizkigu, hain zuzen, herritartze horretan, aplikatu ditzakegun praktika onen inguruan.

Batetik, eskolari lotuta, «etxea» eta «familia» kontzeptuak errepikatu dira nabarmen. Esanguratsua da, izan ere, bertakotzen gaituzten oinarrizko elementuak baitira. Kasu honetan, Zaragueta Herri Eskolari lotuta azaldu dira.

«La verdad, tenemos mucha confianza con el colegio; es que nos sentimos ya familia. Es como nuestra casa; no es solo un colegio»



Honela sentitzearen atzean, badago lanketa nabarmen bat eta baita, aldebiko konfiantza eta konpromisoa ere. Alegia, kontuan hartuak sentitzetik parte hartu eta parte sentitzera doana.

«La directora también hace mucho. Se nota cuando el cole quiere integrar, y te sienten involucrada y entonces te involucras más. Los últimos años desde dirección se nos ha tomado mucho en cuenta, para saber nuestra opinión...»

«Notamos que se está haciendo ese esfuerzo. Entonces, las madres también hacemos un esfuerzo, porque sentimos que cuentan con nosotras. Entonces doy, porque también recibo»

Eta horrek guztiak ikasleen garapen eta bertakotze-sentimentuan ere eragin zuzena dauka. Alegia, giro honetan, aniztasunak presentzia, lanketa eta lekua duenean, norbera parte dela sentitzeko baldintzak ematen dira, baita ingurua eraldatzekoa ere.

«Los míos nunca han venido diciendo que les han insultado o les han dicho, porque ellos se sienten, pues, de aquí y yo creo que hasta ellos les ven de aquí, teniendo otro nombre, sabiendo que tienen otra cultura, pero les ven normalizados, como que son de aquí, oriotarras»

Euskara, kohesio- eta atxikimendu-faktore

Honetan guztian beste gako bat, aurretik aipatutako euskarara inguratzea ez ezik, euskara ikastea ere izan da. Saioetan, batzuk euskaradunak ziren eta beste batzuk ikasketa-prozesuan zeuden, baina guztientzat ezinbestekoa bilakatu da euskara.

Euskaldunen artean, batzuk familiarekin haurtzaroan migratu eta bertan (Zaraguetan, adibidez) ikasi izanaren ondoren euskaldundu ziren; beste batzuk euskaltegian ari dira (AEKn), baina horretarako bidea ere, oso interesgarria egin zitzaigun praktika on gisa jasotzeko.

Izan ere, euskara ikasteko, Zaraguetak berak ireki zuen bide bat, non gurasoei euskara-hastapenak eskaintzen zitzaizkien AEKrekin elkarlanean. Proba horrekin konturatu ziren ekimena ezinbestekoa zela, ez bakarrik euskara-maila edo erabilera sustatzeko, baizik-eta horri lotutako herri-balioen transmisiorako ere, kulturen arteko arrotasun hori hausteko.

Gainera, batzuek eskolatik AEKra saltoa ere horri esker egin dute.

«El año pasado hacíamos aquí, en Zaragüeta, para empezar los padres y madres. Ahora hay otro grupo y nosotras vamos a AEK, más oficial, con examen y todo»

Eta zer da euskararen bidez ematen den balioen transmisioa? Nola bizi dute euskara ikasteko nahia, beharra edo gogoaa? Batetik, seme-alabekiko zaintza eta harremanari lotutako beharrak daude, baina baita harago doazen irakurketak ere.

«Bueno, tenemos hijos aquí, traen deberes en euskera... te da más opciones y oportunidades para integrarte mejor. Además, es el idioma oficial del País Vasco y vivimos aquí, y me parece importante, porque se hace mucho esfuerzo en mantenerlo y, si uno vive aquí, saber el idioma te abre más puertas a hacer más cosas o a dar a entender mejor»



Hala, kontzientzia hori ere garatzen da, izan ere, gogoan badugu, oriotarrek beren burua definitzerakoan «euskalduna» nolakotasuna askotan azpimarratu dute. Beraz, euskarari atxikimendua ez ezik, herriari eta bertako kultur zein harreman sareei lotua ere badago. Eta batzuek ekiteko zailtasunak sentitu badituzte ere, bada gailentzen den konexio-sentsazio bat.

«Igual vas a pedir algo y pides en euskera; te dan alegría te dan las gracias. Hace ilusión y te hace sentirte integrada. Es como una conexión»

Azkenik, euskararen egoera soziolinguistikoak eta hizkuntzaren beraren nolakotasunek jatorrizko ama-hizkuntzarekin eta lurraldeekin konexio kulturalak egiteko ere balio dute.

«De lejos, asusta un poco; es un idioma difícil y eso, y piensas a ver si yo un día llego a hablarlo, pero cuando te vas acercando y vas descifrando las reglas, por qué esto, por qué lo otro, las declinaciones... todo... se te abre un mundo. En mi caso yo soy bereber, Amazigh. Creo que tengo capacidad de captarlo un poco, porque es un idioma raro como el mío y no sé, me une»

Eta, ezin ahaztu, ikasketa-prozesuak berak ahalbidetzen duen giza eta harremanetan jartzeko alderdia.

«También es una oportunidad para juntarnos, conocer gente, pasarlo bien y integrarse mejor»

Horregatik, modu berezian landu nahi izan genuen AEK-ko praktika eta errealitatea.

KASU-AZTERKETA

AEK, euskaratik harago

Ezinbestean, atal honetan, AEK-k sortzen duen ikasketa-espazioari leku berezi bat ematea zegokigun, praktika on eta gako zehatz batzuk ikertzeko. Jakin nahi genuen, euskarara eta euskal kulturara ez ezik, horiek transmititzeko garaian, balio hezkidetzaile edo berdinzaleak ere transmititzeko ahalegina, lanketa, kontzientzia ote duten.

Horretarako, hainbat material dituzte, baina, sarri, sistematizatu gabe. Hala ere, horretan dabilta azken urtean. Dena den, bestelako hezkuntza harremanetan gertatu ohi den bezala, egiturarik ezean, irakasle bakoitzaren ezagutza eta borondatera murrizten da sarri edukien lanketa. Kasu honetan, azpimarratzekoa da irakasle guztiek erakutsitako ezagutza eta prestutasuna.

«Baina, momentuz, irakasle bakoitzak erabakitzen du zer gai eraman eta nola tratatu»

Hala ere, jada, material txikienean ere haien jardunean laguntzen duen kontzientzia badute. Aurten, esaterako, AEKtik bidalitako oinarritzko printzipio eta arauen testu bat zuten, oinarrian berdintasuna eta errespetuzko jarrerak edukitzea zituena. Aipatu zutenez, ez zen testu bereziki zehatza, baina nahikoa izan zen klasean landu eta hainbat muga edo neurri ezartzeko.

«Aurten, lehenengo aldiz, bai etorri zaigula kurtso hasieran irakurtzeko berdintasuneko testu hori. Minimo-minimo batzuekin, ikasleei begira ere AEK-ko oinarriekin, ze jarrera ez diren onartzen...»

«Batzuetan komentario batek ezustean harrapatzen zaitu eta ez dakizu nola moztu, eta gero pentsatzen duzu: "Ez, moztu egin behar nuen!" Eta, justu ostiral hartan, paper hori ekarri eta harekin hasi nuen klasea eta balio izan zidan»

Hortik harago, ikasleekiko berdintasun-balioen transmisioa noiz eta nola egiten duten galdetuta, haien errealtate eta bizipenetatik abiatzea, sarri, nahikoa izaten dela iritzi dute. Izan ere, zaintza-lan ordaindu eta ordaindu gabeetan aritzearena da ikasleen errealtate nagusia.



«Zaintza-lanetan dabiltzan asko ditugu, arlo profesionalean. Hemengo pertsona helduak zaintzeko, ba, eskatzen diete euskara»

«Azkenean, modu profesionalean edo ez, baina zaintza-lanetan»

«Eta lehengo urteko guraso-talde horretan [Zaragueta] nik ikusten nuen askok esaten zutela umeei etxekolanekin laguntzeko. Zaintza horretatik ere bai. Ba, ez dakit... igual gizonetzko aitak edo beste figurak ez du sentitzen hainbesteko behar hori edo, baina bai, ama bezala, askok sentitzen dutela “Jo, ja adin bat hartzen ari da eta ezin diot lagundu; ez dut ulertzen enuntziatua”»

Haien errealitate eta bizipen horiek, beraz, zuzenean Mugimendu Feministaren azken urteetako aldarriekin bat egiteko bidea erraztu zien eta, horri lotuta, Mugimendu Feministako data esanguratsuenak haiengandik hasita lantzeko aukera ere. Azkenik, lanketa hori ez zen ikasgela hutsean geratzen, baizik-eta herriko zenbait ekimen eta espaziotan sartzeko baliatu zen.

«Greba egingo dugu, bai, baina, eske, gainera, justu zaintza zen gaia, eta berak dira zaintzaileak; orduan, zuk niri entzun beharrean, niri tokatzen zait gaur zuri entzutea, ez? Eta oso ondo atera zen»

«Aurten, adibidez, Azaroaren 25ean manifa hemendik pasatzen zen eta hitz egin genuen Saregilekoekin gutxi gorabehera ze ordutan pasatuko ziren hemendik, eta, orduan, gelditu egin genituen klaseak eta denok atera ginen eta banku morean bukatu genuen»

Eta, hortik harago, Udaleko zerbitzuen berri ematen diete askotan edo herriko espazio, elkargune eta eragileak ezagutzeko bidea ere zabaltzen da AEKtik, guztiak hezkidetzan balioen lanketan aktibo dauden espazioak izanik.

«Aurtengo plangintzan, adibidez, konturatu ginen gure ikasle askok ez dutela ezagutzen Emakumeen Etxea, eta, orduan, plangintzan bai txertatu dugula Saregilera -bueno... eta Gaztetxera ere bai, edo herrian dauden beste zenbait lekutara- bisitak egingo genituela»



KORAPILOAK ETA AUKERAK



Euskara, aukera

Idea eta balio berdinzaleen transmisioan, ordea, badira talka egiten duten gaiak ere. Batetik, euskararen eta euskara ikastearen potentzialitate eta ahalmenak ikusi ditugun arren, kontuan izan behar dugu euskara ez jakitea oraindik errealitate bat dela jende askorentzat eta, beraz, baita herriko errealitatera gerturatzeko muga bat ere.

«La revista del pueblo es un medio por el que la gente de fuera se puede entender, pero el idioma es un problema porque no está traducida. Las cosas que pasan en Orio también somos los extranjeros quienes aportamos para que esas cosas pasen»

AEKri dagokionez, sarri, ez-leku gisa bizi dute haiek hezkidetzarloan betetzen edo betetzen ez duten papera. Izan ere, sarri

ez dira kontuan hartuak sentitzen edo solik haurrekin lan egiten dutenean.

«Baina hau dena haurrez hitz egiteko garaian ulertzen da eta AEKren esparrua ez dira haurrak, baizik-eta helduak, nahiz-eta haurrei binkulatuta dauden guraso direlako»

Horrek, aurretik beste arloetan ere nabarmendu den behar bat azpimarratzera garamatza, alegia, koordinazioarena.

«Guk eskolekin, azkenean, harremana nik bai faltan botatzen dut. Helduak nola txertatu, hori ja ez berdintasunetik bakarrik. Euskara ikasteko prozesu horretan gurasoak dira asko, herrian zaintzan daudenak dira asko eta, nolabait, nola lotu eskolen arteko koordinazioa, ze, azkenean, bi eskoletako gurasoak dauzkagu. Orduan, askotan, bat alde batetik doa eta bestea, bestetik...»

Arrazakeriaren lanketa, ezinbesteko gako

Guraso musulmanekin, bestalde, gutxienez gure aurreiritzi zurietatik abiatuta, korapilo izan zitekeela aurreikusten genuen gai batzuk identifikatuta genituen, hain zuzen, sexu-heziketa eta LGTBIQ+ gaiak.

Kontziente ginen migrazio-prozesuetatik harago, migranteek edo gutxiengo erlijiosoetako pertsonak aurreiritzi eta estereotipo sozialak jasaten dituztela eta, askotan, LGTBIQfobo gisa identifikatu edo eraikitzen ditugula begirada etnozentrikoaren ondorioz. Horregatik, uste dugu kulturarteko ikuspegiak norberaren ikuspuntua zalantzan jartzea ahalbidetu behar duela eta, aldi berean, beste kultura-esparru batzuetatik

sexualitatea eta generoa nola kudeatzen den ulertzeko modu berrietara ireki. Hala, elkarriketa horiek planteatu genituenean, gaia aurreiritzirik gabe eta ahalik eta modu askeenean jorratzeko ariketa egin genuen guztiok.

Sexu-heziketari dagokionez, lehenengo topatu genuen korapiloa adinarena izan zen. Beren iritziz, goizegi lantzen dira hainbat gai eta, gainera, gai horiek etxean lantzekoak direla uste dute.

«A mí no me gustaría que se trabajara el tema de la sexualidad cuando son muy pequeños. En casa ya hacemos nuestro trabajo. Ya se ha sexualizado bastante a los chavales como para que aprendan depende qué cosas. Creo que hay edades y edades. Que lo hagan a una edad en la que estén despertando sexualmente lo puedo entender, pero que les estén dando sexualidad con 8 o 9 años, me parece una barbaridad»

«Puedo respetar que se haga para el resto, pero espero que también se entienda que yo también quiero tener a mi hija en la edad en la que está y que no necesito que vaya demasiado rápido»

Bestalde, LGTBIQ+ gaitegiak aritu ginen eta, hemen, hainbat kontu nahastu ziren. Batetik, errespetua zen oinarri, baina, batzuetan, eskolan eta espazio publikoan gaiak gehiegizko presentzia zuela iruditzen zitzaien.

«Tengo el tema muy normalizado, pero me parece una imposición hacia todos los chavales. O sea, yo puedo entender, por ejemplo, que hay que normalizar. Yo, por ejemplo, le digo a mi hija que hay gente que tiene dos mamás o dos papás y hay que respetar. Igual que ella también va a ser la diferente en muchos momentos; ella



también tiene que tratar bien al que es diferente para ella. Eso le enseño, por supuesto»

Errespetu horren bueltan, baina, bazegoen interesgarria egin zitzaigun beste ideia bat, alegia, zapalkuntza desberdinak identifikatzeko beharra, eta, akaso, lehentasunezko beste batzuk lantzekoa.

«Que se haga hincapié en algunas cosas y no en otras lo tengo asumido y lo respeto y nunca he dejado de lado a nadie porque sea gay. He tenido amigas gays, he tenido una prima gay, pero sí que me parece, que se haga tanto en una cosa y tan poco en otra, porque es verdad que el insulto es “puto maricón” pero también es “puto moro”, y eso existe, y creo que tendría que ser más generalizado que se eduque en el respeto a todo lo que se considera diferente»

Elkarrizketa horretan, beraz, arrazakeria eta islamofobiaz hitz egiten amaitu genuen eta, hasiera batean, LGTBIQ+ gaien presentziarekin lehian baleude bezala aipatu ziren.

«Es verdad que en este cole, como hay mucho inmigrante, no hay tanto problema. En el pueblo, en general, igual más, porque son menos, y entonces se percibe más. Y, por ejemplo si en el cole tienes colgada la bandera LGTBIQ+, pues pon también “No al racismo”, no?»

Ikasleekin edo seme-alabekin ezinegon horiez hitz egitearen beharra azaldu zen, alegia, zein gaik eragiten dien desberdinkeria eta bazterkeria, eta, akaso, hortik lan egitea zela garrantzitsuena.

«Yo creo que lo ideal es, también, coger a los alumnos y preguntarles cómo se sienten. Al final, son los protagonistas, porque ellos también tienen un pupurrí: nacidos aquí, otros que vienen de otra cultura... y estaría bien saber cómo se sienten ellos en el día a día»

Eta, elkarrizketaren amaierarako, zapalkuntza guztiak lantzeko beharrari buruzko adostasuna nagusitu zen. Hori argi utzita gai batzuekiko erresistentziak egon badaudela, baina baita, beste gai batzuk lantzeko hutsuneak ere eta horrek ate bat irekitzen digula lanketak birpentsatu eta uztartzeko.

«Entonces considero que el tema de la homofobia, evidentemente, hay que trabajarlo en según qué aspectos; también en el racismo. Y, a nivel general, en el pueblo, porque es verdad que en este pueblo estamos bien, pero existe»



Ikus dadila herri askotarikoa dela

Eskoletako lanketetatik harago, herri mailan, egunerokoan bizi eta aldatu nahi genituzkeen gaiez aritu ginen. Argi aipatzen zen herri-mailako lanketaren beharra, eta, bereziki, elkar ezagutu eta aurreiritziak haustekoa.

«Porque hay mucha ignorancia. Porque yo, si quiero conocer una cultura, tengo que entrar a buscar y indagar un poco. No solo ver a la persona desde fuera y empezar a juzgar. Porque cuando nos acercamos en una charla o una quedada, se cambian muchas ideas sobre nosotras. Te ven con el pañuelo y creen que ni has estudiado, ni hablas idiomas... Yo por ejemplo me hicieron una pequeña entrevista el año pasado y dije que había estudiado

derecho, que hablaba francés y un poco de inglés, y la gente me paraba por la calle y me decía “Hostia, yo no sabía que hablabas tantos idiomas, no sabía que estudiaste derecho...” Claro, porque nos ponemos el pañuelo porque somos musulmanas, porque es mi identidad [...] no es que nos tapemos el cerebro con el pañuelo»

Hala ere, esperientzia eta bizipen positiboak ere aipatzen dira herriarekiko. Batzuek oso markatuta dute Marokoko 2023ko lurrikararen ostean herriarengatik jasotako babesa.

«Yo me di cuenta de lo bastante integrados que estábamos cuando hicimos la recolecta para el terremoto de Marruecos y todo el pueblo acudió, y ahí te das cuenta, no? En realidad, no estamos tan lejos. Sí nos están teniendo en cuenta»

«Para mí, fue un antes y un después. Yo no imaginaba que el pueblo iba a responder así, porque además lo hicimos en la mezquita»

Babes-keinu horiek, gainera, balio izan zuten herrian jada elkarbizitza egiten zuten kultura eta komunitateak hobeto ezagutzeko, murru batzuk pasatzeko. Adibidez, meskitara lehen aldiz joan ziren askorentzat.

«La gente tenía mucha curiosidad, eh? De entrar, de mirar cómo era... Y había gente, que en 17 años que lleva nunca, había entrado. También había gente que decía “Siempre he tenido curiosidad y con esto entro y veo, porque no he tenido oportunidad”»

Eta esperientzia horiek erakusten dute, kultur eta herri-balioen transmisioan ere badaudela fusio, lanketa eta moldaketak,

inoren sinesmen eta beharrak hautsi gabe elkarrekin parte hartzeko bideak irekitzen dituztenak. San Tomas eguneko adibidea da horietako bat.

«Por ejemplo, cuando son fiestas, y hay, por ejemplo, chistorra, y para nuestros hijos, siempre chocolate. Y nosotras proponemos halal, y ahora hay chistorra halal también. Parece una tontería pero son cosas que importan. Puede haber choques culturales, pero también hay soluciones»

Azkenik, Saregileren papera da azken urteetan transmisio eta herritartze horretan leku berezia bete duena. Hainbat lekutatik eragin du, bereziki, jatorri askotariko emakumeen topalekua dago, berebiziko papera jokatu duena hainbat pertsonarentzat. Bereziki baliagarria izan da saretzeko, Orio ezagutzeko, emakume bezala bizitzen dituzten errealitateak izendatzeko... eta, gainera, beste emakume migranteei ongietorria egiteko ere.

«Un grupo para las mujeres de Orio y las extranjeras también y hacer más actividades juntas, trabajar juntas para hablar de cómo pensamos, para hablar de los problemas y las soluciones»

Bestetik AEKtik bertatik sustatu da Saregile bezalako espazioaren ezagutza eta, baita, sarri, emakume-taldearen ezagutza ere.

«Berekin zerikusia daukaten ekimenak —emakume migranteen taldearena, adibidez— espreski jakinarazten dizkiegu. Saregiletik abisua pasatu ziguten, adibidez, eta ikasle bat hala hasi zen»





ONDORIOAK

Atal honetan, beraz, argi ikusi ditugu hainbat gauza. Batetik, gaur-gaurkoz, Orioko identitatean hainbesteko garrantzia duen euskarak kulturartekotasun eta herritartze funtzioa ere betetzen duela.

Bide horretan ikastetxeen eta AEKren paperak ezinbestekoak direla eta, horri segika, AEK hainbat koordinazio-esparrutan egotea garrantzitsua dela.

Bestalde, aurreiritzien gaintik, elkar ulertzeko puntu asko daudela eta ezinbestean, hezkidetza-logiketan arrazakeriaren auzia lantzen hasi behar dela modu koordinatu eta integralean.

Azkenik, herri-mailan kulturen arteko ezagutza bultzatzeko ekimenak beharrezkoak direla.

05

KIROLA



05 KIROLA

*Gauzak aldatzen ari direla esango nuke;
baina aldatu direla, ez.*



KOKAPENA

Ibilbide honen hasieran jakitun baginen ere, amaiera aldera iritsi ahala, are argiago ikusten hasi ginen Orion kirolak betetzen duen paper eta lekua garrantzitsua ez ezik, kiroleetik harago doan zerbait dela.


Bestalde, agerikoa da, Orio eta kirola esan ezkerro, ehuneko handienari «arrauna» etortzen zaiola burura. Hala ere, hilabete hauetan, herriko kirol-eskaintza eta jarduerak duen aberastasuna ere ezagutu ahal izan dugu.

Arraunari ondoan, herrian garrantzi handia duten eta espazio handia betetzen duten surfa eta futbola daude, baina baita beste batzuk ere: eskubaloia, softbola, atletismoa, pilota, zikloturismoa, mendia...

Eta kontuan izanik kirol-arloa ere hezkidetza-ikuspegitik begiratzen ari ginela, ezer baino lehen, elkartasuna, berdintasuna, aniztasuna, adinartekotasuna eta irisgarritasuna bezalako balioen praktika eta transmisioan lan egiten duten elkarteak topatu ditugula azpimarratu nahi dugu.

Bestalde, irakurlea jakinaren gainean jarri nahi dugu: baliteke kirol edota esparru konkretu batzuetako ahotsak faltan bilatzea. Hori bi arrazoigatik izan daiteke. Batetik, ikerketaren hedadura mugatzeko, ahots guztiak jasotzera ez garelako iritsi, edota, parte hartzeko gonbidapenak egin arren, erantzunik ez dugulako jaso.

Nolanahi ere, atal honetan, sei kirol-jarduera edo esparru ikertu ditugu (arrauna, surfa, gimnasioa, eskubaloia, futbol-gradak, eta beste kirol-jarduerak) eta bertan ikusi ditugun (edo ez) balio eta praktika berdinzaleei begira, korapilo eta aukerak identifikatu ditugu.



KORAPILOAK ETA AUKERAK

Arrauna

Ikerketa honen hasieratik, herri-identitateari erabat eta hertsiki lotutako elementua izan da arraunarena; beraz, horrek kirolek harago doan errealitate bat iradokitzen digu eta parte-hartzaileek ere hala pertzibitzen dute.

«Nik uste dut dela herri bat, tradizio asko dituen... gizonetan zentratutako tradizioa. Arraunaren mundua gizonezkoena izan da; egia da guztiz aldatzen ari dela, baina hala da eta gizonei eskatzen zaiena emakumeei ez eskatu, edo berdin da emakumeek ez lortzea... Tradizio handiko herri bat da, zentzu guztietan»



Horren harira, saiatu gara ezagutzen zein den arraunean emakumeek duten lekua eta papera eta zer den hortik jasotzen dutena. Izan ere, gauzak aldatu dira, eta badago kontzientzia hori.

«Nik, kirolari bezala, aurrerapen handia ikusten dut. Ni hasi nintzenean, arraunean ez zegoen emakumezkoen trainerurik. Momentu hartan ez zegoen imajinatzerik emakume batek arraunlari izatea zeukanik... eta nik uste dut hori, gaur egun, umeengan-eta, aldatu egin dela. Ikusten dute emakumeek ere arraunlari izatea daukatela»

Kuriosoa da, ordea, gauzak aldatu diren ustea gehien azpimarratu dutenak ez direla emakume arraunlariak izan, baizik-eta bestelako herritarrak eta klubeko arduradunak. Haiek dute aldaketa horien pertzepzio handiena.

«Arraun elkarteak ere apustu handia egin du emakumeei beren espazioa ematen. Bo, nik, behintzat, hola bizi izan dut, hasieran igual oso kritikatuak izan zirelako eta jakin zutelako horri buelta ematen. Apustua ere egin zuten direktiban emakumeak edukitzeko...»

«Orain datuak ez dauzkat hemen, baina nik uste dut lehengo urtean neska gehiago zeudela mutilak baino. Hor zerikusi handia edukitzen du azken urteetan goiko taldeak zer errendimendu atera duen, erreferente bihurtzen direlako eta, orduan, gogoia ere horri begira sortzen delako»

Beste batzuek, ordea, uste dute gauzak ez direla horrenbeste aldatu, baina, gutxienez, auresuposizio bat gailentzen da:

gutxienez, inor ez dutela kontra izango. Baina, horren segidan, oso jakitun da hainbat emakume izate hutsagatik egin beharreko lana, jasotzen duten tratua eta eskatzen zaien esfortzua handiagoa dela.

«Ez dut uste kontra joango direnik. Ez zait iruditzen arraunlariak edo Arraun Klubekoak emakumeen kontra joango direnik. Desberdin tratatzen dituztela? Oso maskulinoa delako, baina nik uste dut horrela, plasta-plasta, bakarren bat eman dutela eta Kontxako Bandera emakumezkoek ekarri eta gizonezkoek ez. Eta aho horiek isilduarazi dituzte. Emakumeok aurrera atera behar izan dugu eta ez bereziki jaso dugun apoioagatik, baizik-eta balekoak garelako»

«Nik uste dut hobetzen ari dela tratua eta hori guztia, baina, adibidez, arraunean, ba, igual bai gizonezkoei garrantzi gehiago ematen zaiela. Herriaren partetik ere, bereziki. Emakumeekin saiakera egiten ari dira maila berdinean jartzeko, baina...»

«Arraunlariak herrian erreferente dira; eta gizon eta emakumeak ez dira erreferente modu berean. Nadeth bat izatera iritsi da, 30 bandera irabazi dituelako eta ez dakit zenbat urtetan patroiz izan delako. Baina gure inguruko gazteei galdetu eta jokatu nuke mutilen 10etik 5 gai direla mutilen tripulazioa esateko eta emakumezkoena, ez»

Edo, beste modu batera esanda, jasotzen duten atentzioa, zaletuen entrega edo ospakizunak oso desberdin bizitzen direla, nahiz eta, adibidez, azken urteetan, neskek mutilek baino bandera edo liga gehiago ekarri.



«Urte guztian joaten ez den jendea joaten da estropa horretara eta kristoren oriotarrak dira. Mutilak pasatzen direnean, gu ja uretan egoten gara eta uretatik ikusten da humareda hori bat, kristoren builak ez dakit zer... petardoak, piroteknia dena... eromen bat. Gu ordubete lehenago pasatu ginen, eta jendea han zegoen: “Aupa neskak!” eta listo»

Protagonistekin hitz eginez, interes falta hori zaletuen kontua soilik ote zen galdetu genien eta gako bat eman ziguten.

«Zaletuen artean aipatu dugun interes falta hori denera transladatzen dela uste dut. Zuzendaritzakoek ere antzekoa daukatela. Orduan, ba, klaro, hartzen dituzten erabakiak (kasu zeini egiten dioten, zenbateraino pendiente dauden bakoitzaren ongizatearekin...) horren isla direla iruditzen zait»

«Hemen alironak berdinak izaten dira neskak edo mutilak irabazi, baina anbientea ez da berdina izaten. Ofizialki egiten dena berdina da eta ez du klubak egiten, hau da, herriak, Udalak, antolatuta egiten da, udako igandeetan»

Gero, herriaren erantzuna, zaletuen ospakizunak edo jendearen babesa bezalako plano sinbolikoetatik erabat materialak diren arloetara igaro ginen. Hain neurgarria den arlo ekonomikora, hain zuzen.

«Ekonomikoki ere hor barruan sartzen da. Oso alde handiak daude»

«Aurten kristoren inbertsiotzarrak egin dira mutiletan. Gure ekipoko batzuei fitxa pagatu ez, eta mutilei kristoren dirutza...»

«Gure ekipoko batzuk Ondarrutik eta beste bat Zumaitik etorri ziren eta klubak hasieratik esan zuen “Zuengatik ez dugu pagatuko”. Orduan, urtero guk irabazten dugu dirua, estropadaero diru-kantitate bat ematen digu ligak irabazten badugu, sariak-eta. Guk irabazten dugun dirua da solo premios. Eta, orduan, klubak esan zion guk ez dugu pagatuko eta egin dezakezuena da zuen sariak guri eman era honetara: guk 8.000€ uzten dizkizuegu eta zuek sariekin bueltatu. Eta, orduan, egin zuen, urtero, 2.000€ bere sarietatik irabazten zuena klubari eman. Baina, adibidez, mutilei klubak pagatu die fitxa. Eta, aparte, sariak irabazten dituzte eta oinarri bat daukate»

Surfa

Kirolari zuzenean lotuta ez zeuden hainbat eragilerekin espazio publikoa seguru-eroso/ez seguru-deseroso dikotomian kokatzeko eskatuta, surfeko lokala eta haren inguruak azaltzen ziren behin eta berriz. Batez ere, historikoki emakumeentzako identifikatzen zen deserosoa gune hori, baina ez bakarrik, hainbat gizonek ere hala identifikatu baitzuten.

Hala ere, azpimarratzekoa da egun oraindik emakumeek handik igarotzean sentitzen duten deserosotasunak dituen ezaugarriak oso konkretuak eta errepikakorrak direla, alegia, objektualizazio eta balorazio sentsazioarenak. Bestalde, surfeko eraikina eta aldagelak ez seguru bezala identifikatuak izan dira hainbat lan-saiotan.

Deserosotasun horren egiturazko arrazoietan sakonduz, ikusi genuen batez ere bi zirela sentsazio hori eragiten zutenak.



Batetik, gizonen espazio bezala irudikatzen da surf lokala eta ingurua eta, gainera, espazio itxi eta territorial gisa.

Horri jarraituz, bestetik, espazioarekiko botere eta itxitasun horrek, eta botere hori gizonena izateak, emakumeen presentzia eta erreferentzia oso baxua izatea dakar. Adibide argia da, «Emakumeok Surflari» bezalako ekimenak, Zarautz, Donostia eta abarretan funtzionatzen dutenak, Orion onartzea «izugarri kostatu» dela. Eta, azkenean emakumeak ahalduntzeko programa bat egitea lortu bada ere, bertako gizon batek eman duela ikastaroa.

«Baina ez dute onartu “Emakumeok Surflari”ko inor etortzea. Egin dutena da, haietako surflari batek ematea. Oso itxiak dira»

Horrek zein ondorio ditu balioen praktika eta transmisioan? Alegia, bertan emakumerik ez egoteak? Bada, gure eguneroko praktika eta errealtatetik emakumeak kentzen ditugunean, unean bertan ez ezik, aurrera begira ere, haien parte-hartzea ez dugu ez imajinatu ez sustatuko.

Nolanahi ere, egoera aldatzen ari dela iritzi dute hainbatek.

«Lehen bazen surfeko lokalaren inguru hori oso berena, baina hor ere ireki egin dira. Hor, beren artean ere aldaketa handia egin dute eta, bai, irekiago daude: emakumeak gehiago sartzen dira, umeak ere bai...»

Gimnasioa

Jakitun izanik azken urteetan gimnasioaren kultura aldaketa handi bat egon dela, erabileran ere eragin zuzena izan duela argi dute erabiltzaile zein herritarrek.

Batetik, identifikatzen dute gimnasiora joateko, gaur egun, oso ahaldunduta egon behar duzula, bai zure gorputzarekiko, bai makina eta ariketen inguruan ere.

«Nik uste direla botere-gune batzuk oso ahaldunduta egon behar duzuna sartu ahal izateko, eta Orioko gimnasiora joaten bagara, ba, hola da»

Botere-gune horiek nork betetzen dituen galdetuta, hainbat saiotan jotzen zen profil oso konkretu bat izendatzera.

«Da gizon muskulatu izerditsu bat; gainera, fondo-fondoan dago, dena pasatu behar duzu hara iristeko eta, ba, hori... oso gizon-eremua da, makinak kontrolatzen dituen jendearena, eta hor zu haien artera joan eta kirola egiten hasteko... Ez da espazio aske bat, ez dago elkarbizitzarik, balioak dira denak...»

Baina, hala ere, batek baino gehiagok aipatu du, bere ustez irisgarritasun hori ahalbide-tuko edo lagunduko zuen gako bat.

«Ni orain ez naiz joaten, baina nire inpresioa da, garai batean, adibidez, norbait zegoenean gimnasioan laguntzeko eta zera, ba, igual, beste kirol batzuk egiten genituen jende gehiago gerturatzen ginela gimnasiora, eta emakume gehiago joaten ginela, eta gerora, noiz edo noiz joan naizenean, pufff... ba, gehiago makina historia dago, zinta eta eliptikoa baino»



«Gero, ez da kasualitatea ez dagoela begiralerik. Orduan, klaro, boterea daukanak edo gehiago kontrolatzen duenak hartzen du rol hori, eta, gero, hori nahi ez duen jende guztiak, ba... Zuhegan bezalako espazio bat sortu da herrian, pribatua dena, eta justu guzti horretatik alde egiten duena eta kristoren booma eduki duena. Da justu gidatua, goxoa, norbanakoaren prozesua errespetatzen duena, inoiz kirolera hurbildu ez denari bidelagun egiten diona...»

Balioen transmisioan talkak

Azkenik, aurrez aipatutako guztiak kirol-jardueran ari direnengan ez ezik, ingurukoengan ere jarrera konkretu batzuk aktibatzeke oinarri ere izan ohi dira. Alegia, kirol-esparrua maskulinizatua egoteak, batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa izateak, konpetentzia ez ezik konpetibitatea sustatzeak, eta indartsuenaren/badakienaren/territorioa berea denaren legeak funtzionatzeak ondorio zuzenak ditu jarduerak bizitzeko orduan. Hiru adibide argi azaldu dira behin eta berriz.

Batetik, batez ere futbol-partidak ikusteko orduan, oraindik, zaletu eta guraso batzuen partetik ematen diren jarrerak. Orokortua ez dela jakin arren, askotan aipatu den errealitatea da.

«Gurasoen partetik, joaten direnean beren seme-alabak-eta ikustera —eta hemen, igual, badago arriskua orokortzeko, eta ni, igual, baita ere, gidatzen naiz bi edo hiru guraso partida batean daudela nota ematen—, baina egia da askotan ikusten direla jarrera batzuk gurasoen

aldetik, ba, tentsio gehiegizkoarekin, eta horrek transmititzen duen guztiarekin balioen inguruan eta hor sortzen den giroa kirolaren aitzakiarekin»

Bestetik, entrenatzaileen jarrera ere aipatu da sarri, baina baita erreferente izateko duten potentzialitatea ere.

«Entrenatzaileen jarrerak kezkatzen nau. Kirol-mundu matxirulo horretan, badaude erreferente batzuk oso onak direnak, baina ez dira bakarrik erreferente kirol-eremuan. Gazte horientzat eta ume horientzat erreferente dira, eredu bat, orokorrean. Falta zaie –ez denei, baina– pixka bat nola iritsi haiengana...»

Azkenik, herri-mailan askotan aipatu den eremu bat dago, interes berezikoa, hain zuzen arautu gabeko kirol-eremu bat delako, baina ez horregatik aurrez aipatutako praktika horiek birproduzitzeari uzten diona. Are gehiago, akaso, modu esplizituagoan bizitzen dira praktika horiek.

«Kanpito da futbol-zelai handi bat, fubol-zelai txiki bat, eta gero eserlekuak horri begira. Eta, klaro, hor, ja, txikitatik ibiltzen dira, baina, handiak etortzen direnean, balonazoka hasten dira, handik botatzen dituzten arte. Agresio asko, indarkeria pila bat dago eta hori da txikitatik beren erreferentzia eta ez daude espazioak beste era batekoak»



Eskubaloia

Orioko kirol-munduan egindako bidaia honetan, hainbat dira espazio historikoki maskulinizatuek utzitako ajeak eta eragiteko dauden eremu eta espazioak, baina, zorionez, ez da hori bakarrik.

Eragin eskubaloi-kluba ere bada herrian erreferentzia nabarmena lortu duen kluba, zer eta neskentzako eskaintza duen kluba izanik. Esperientzia konkretu honetan murgildu nahi izan genuen, egiten den balioen transmisioan sakondu eta praktika onen ikuspuntutik beste eremu batzuetan aplikatzeko baliagarriak diren esperientziak ezagutzeko asmoz.

Lehenengo galdera argia zen: berdintasunaz ari bagara, zergatik neskentzat bakarrik den espazio bat sortu?

«Aurrera egin genuen, oso garbi edukita nahi genuela neskentzako espazio bat izatea. Ikasi dudanarekin eta bizi izan dudanarekin, berdintasuna badakit neska eta mutilei aukera berdina ematea dela, baina espazio batzuk —bereziki, eremu publikoan— gizonez okupatuta daude. Leku, eremu guztiak —eta, gaztetan, askoz gehiago—, jolaslekuak hartzen dituzte mutilek baloiarekin... Guk nahi genuen neskek izatea eremu publiko bat, kiroldegi batean neskak bakarrik egotea... neskentzako espazio bat, nesken onarpena, nesken balioa eta ardatz hori hartuta»

Beraz, gizon eta emakumeek kirolarekiko eta espazio publikoaren erabilerarekiko abiapuntu desorekatua dutela kontuan hartuta eraiki zuten ideia hau. Gainera, kirola ulertzeko edo kirol-jardunak dituen helburuekiko ere aurrez aipatutakotik desberdintasun bat ikusten dugu.

«Guk ez dugu formakuntzarik eta ezer egiten, baina da abiapuntua betaurrekoak jantzita delako. Erdigunean neskak daude, beren ongizatea dago erdian. Kirol-emaitzak ondorio bat dira»

Hala, nesken ahalduntzea ere ardatz garrantzitsua izan zen eta horrek zuzeneko ondorioak izan ditu denbora gutxian.

«Hori aldarrikatzen irabazten dugu errespetu hori eta gure leku hori, eta neskek ere esatea “Guk ere hemen lekua daukagu”. Eta horrekin egin duguna da Ikastolako eta Eskolako espazioak direla-eta neskek esatea: “Guk ere jolastu nahi dugu baloiarekin, futbolekoa ez dena”. Eta, ondorioz, mutilak ere eskubaloian jolasten hastea, eta mutilak ere eskubaloi-partidak ikustera etortzea»

«Nik esaten dut beti “Gu kirola egiten ari gara, baina emakumeak formatzen ditugu”. Eta nire filosofia, pixka bat, hori da, kirolaz harago joatea. Honek beren bizitzarako balio izatea»

Eta, azkenik, egituretan ere errealitate, begirada eta presentzia hori izatearen garrantzia azpimarratzen dute behin eta berriz.

«Zuzendaritza-taldean beti emakume gehiago daude. Entrenatzaile-taldeetan ere saiatzen gara, baina, gero eta talde gehiago daudela, zailagoa da... Gutxienez, talde teknikoan emakume bat egotea zaintzen dugu; ez bada entrenatzailea, ordezkaria da, laguntzailea...»





ONDORIOAK

Argi dago, hortaz, kirola badela, batetik, hezkidetza-balioa transmititzeko ezinbesteko jardun-multzoa, ariketa fisikoari lotuta, herri-mailako identitateari lotuta eta plano sinbolikoan mugitzen duen guztiagatik.

Beraz, lanketa propioa behar duen arloa da, espazio, instalazio eta mugimenduaren analisisa behar duena, besteak beste emakumeen parte-hartze eta errekonozimendua elikatzeko.

Bestetik, garrantzitsua da kanpo- eta barne-ikuspuntuak azaleratzea, alegia, emakumeek kirol-jardun, esparru eta harremanak zein diren haien ahotik ezagutzea.

06



**MUGIMENDU
FEMINISTA ETA
LGTBIQ+**

06 MUGIMENDU FEMINISTA ETA LGTBIQ+

Orio ez da herri feminista.

Eta ez da emakumeen gauza, herriarena da.

Hor dago diferentzia, nik uste dut, ez?

Kontzeptua ez da gure gauza, ez da gure borroka.

Herriaren borroka da; izan beharko luke, behintzat.



KOKAPENA

Mugimendu Feminista, Saregile eta LGTBIQ+ mugimendua izan dira ibilbide honen amaieran ikerketa honi itxiera emateko aukeratutako eragile eta espazioak. Izan ere, jardun honetan hezkidetzak balio eta praktika berdinzaleak sustatzen dituela errepikatu badugu behin eta berriz, eragile horiek dira, dudarik gabe, herrian berariaz haien jarduna feminismotik eta feminismora bideratzen dutenak.

Interesgarria da, bestalde, herriko Mugimendu Feministaren funtzionamendu eta erreferentzialtasunean Saregilek betetzen duen tokia ere. Kanpotik askorentzat gauza bera diren artean, beste batzuentzat erabat desberdinak dira. Errealitatea, ikusiko dugun bezala, bien arteko oreka bat da. Ez mugimendu, ez instituzio edo bien arteko giltza bat.

Bestalde, beste edozein herritan bezala, Orioko Mugimendu Feministak ere garai, forma eta funtzionamendu desberdinak izan ditu, baina, azken urteen inguruan galdetuta, argi duten lehenengo gauza, Oriokoa, erantzunari lotutako mugimendua dela.

«Hilketaren bat baldin badago Euskal Herrian edo erasuren bat baldin badago Orion, hor ja segituan erantzuna ateratzen da»

Pizgarria erantzuna izatea ohikoa den arren, horren inguruan sakontzeko eskatuta, argi dute arrazoi nagusia zein den.

«Lourdesen hilketa matxista eta gero, asko aktibatu ginen eta hor gorabeheratsuagoa izan zen eta egin genuen deialdi bat, mugimendua aktibatzeke. Eta hor hasieran, bai, erabaki zela —edo planteatzen zela— A25eko edo M8ko ekitaldiez gain, kontzentrazioak antolatzea erasoak baldin badaude, hilketak baldin badaude... eta hasieran horretara mugatu ginen»

«Bai, eta hori markatzen du Lourdesen erailketak. Ordura arte ez ginen biltzen, ez zegoelako indarririk eta orain indarrak nolabait atera egin ditugu»

Beraz, Lourdesen erailketak, nolabait, herriko mugimendua berraktibatu zuen, baina ez hori bakarrik, baizik-eta mugimendua bera ere saretu egin zen.

«Ez geundelako saretuta belaunaldi artean ere, eta hor saretu egin ginen»



Hor aipatu behar da, berriz ere, mugimendu eta instituzio dikotomiatik erabat at ez dagoen harreman hori, non mugimendu sozialetako kideek argi eskertu eta onartzen duten Saregilek betetzen duen ezinbesteko papera.

«Saregiletik asko tiratzen da; gehiegi, igual. Fetxa oso-oso gertu dagoenean, inor ez da etortzen kezkarekin eta, orduan, saregiletarrok hartzen dugu ardura asanblea deitzeko»

«Azkenean, pisua erortzen da zuengan [Saregile] eskatu ez duzuen, ez? Borondatearekin eta eskertuta baina... hori pixka bat uste dut desegin egin behar dela eta beste era batera funtzionatzen hasi»

Erantzunari lotutako mugimendua izateak, beraz, izaera konkretu bat ematen dio mugimendu zein herri-erreferentzialtasunari. Irudi horrek, sarri, adostasun komun baten zilegitasunari ere erantzuten dio, alegia, oro har, gizartea eraso matxisten aurka dago eta, beraz, horren aurrean kokatzen den mugimendu batek badu kanpo-onarpen bat. Ustez. Izan ere, ikus dezagun nola pertzibitzen den feminismoa herritik.



KORAPILOAK ETA AUKERAK

Herria feminismoarekiko

Herrikide batzuen ahotik, badago ideia feministen edo emakumeen ahalduentzaren aldeko borroka errekonozimendu bat, emakumeek haien lekua lortu izanarena eta abar.

*«Espazio publikoan emakumeek lekua daukagula...
Merezimenduz da, guk espazio publikoa nahi dugula
gurea ere badelako»*

*«El empoderamiento de las mujeres que veo en el pueblo
no está nada resaltado a no ser que sean mujeres del
movimiento o sean profesionales en eso o lo que sea...»*

Baina pixka bat sakonduta, segituan azaltzen dira erresistentziarako bi elementu nagusi, behin eta berriz, arlo desberdinetan errepikatuko direnak. Batetik, «feminismoa» kontzeptuaren ezezagutza edo ezagutza okerra. Bestetik, ustezko «muturrekotasuna» eta «erradikaltasuna» errefusatzea, edota, ideia feministen aurka egotea.

«Eta, igual, ez mutilak bakarrik e? baina zuk galdetzen duzu “Feminista zara?” eta esaten dizu “Ez, nik berdintasuna nahi dut”. Ez dakite ezta zer den feminismoa»

«Nire ustez, beharrezkoa da emakumearen alorrean tak-tak egiten duen hori egotea; baina, dena bezala, muturretara joan gabe. Ebidentemente, matxismoa ez dago ondo —lehen esaten genituen muturrak, ez?—



Muturrak ez daude ondo, o sea, ez dugu matxismoa feminismoagatik aldatuko, ez?»

«Feminista esan eta gaizki begiratzen zaituzten momentutik, hor badago caldo de cultivo bat ez dena batere egokia feminismoa zabaltzeko»

Eta horrek guztiak eragin bat ere badu ideia feministen transmisioan. Alegia, ideia horiek defendatzeak sortzen duenari lotuta edo, beste modu batera esanda, neska gazteek sarri ez dute haiek feminista bezala identifikatuak izaterik nahi.

«Gero, adibidez, nik uste, ez mutilak bakarrik, neska batzuk ere badira oso... Ez da, igual, heziketagatik bakarrik, baina, igual, gizarteak holako gertaerak isolatu bezala egiten ditu eta badago jendea, neskak barne, lotsa ematen diena hona etortzea edo holako ideiak defenditzea»

«Ze ari gara egiten herri bezala ez dugunean permititzen neska gazte batek askatasunez esatea “Ni feminista naiz eta berdintasunaren alde lan egiten dut”? Eta horrek, seinalatua izan beharrean, bihurtu beharko luke erreferente ondorengo neskentzat»

Identifikazio falta horrek, gainera, izan benetan ideia feministekiko atxikimendu faltagatik edo horiek adierazteak sortzen duen lotsagatik, ohikoak eta adostasun soziala duten datetatik ere at paratzen dituzte asko.

«Nire kuadrillakoak, adibidez, martxoaren 8 batera edo azaroaren 25 batera ez dira joaten»

«Nire kuadrillakoak ere ez, lasai»

Hortaz, ideia feministen aurkako erresistentzia horietan, gizonen jarrerak ere aipatu dira sarri, baina kuriosoena da, ikerketan zehar, mutilekiko ideia feministek sortzen duten errefusa emakumeen ahotatik azaldua izan dela behin baino gehiagotan.

«Gizonezkoak ari dira bizitzen jarrera feminista batzuk mehatxu bezala. Eta nik esan nien Saregilekoei: Aurtengo mezua “Ez bazara konponbidea arazoa zara”, niri, bi mutilen ama bezala, iruditzen zitzaidan oso gogorra. Mezu horretatik gizonak ez ditugu aliatu egingo gure kausara, konfrontatu egiten ditugu»

«Mugimendu feministatik batzutan bidaltzen ditugu mezuak ez direnak erakargarriak berentzat»

Herria herriko feministekiko

Baina feminismoa ideia- eta praktika-multzo bat izateaz harago, pertsona feministek gauzatzen duten jarduna ere bada. Kasu honetan, zer nolako harremana dute herritik feminismoaz dauden ezezagutza eta errefuxek herriko Mugimendu Feministarekin edo norbanako feministekin? Alegia, zein iritzi du oro har ideia berdinzaleekin bat datorren Oriok, ideia horiek lantzen dituen herriko Mugimendu Feministaz?

Mugimenduko parte-hartzaileek argi dute herritik hala ikusten dituztela «exajeratuak, protagonismo nahia dutenak, erradikalak...» eta herriarengandik, sarri, «oldarkeria zein gutxiespena» jasotzen dutela sentitzen dute.



«Kuadrilla eta etxe askotan, nik uste, asko komentatu zela, “Eske, hauek pasa egiten dira...” Nik uste dut hor oso seinalatuak izan ginela»

«Igual, herriaren begietatik, ekintza erradikalena izan zen. Ez dakit, e? Baina, hola, modu publiko batean egin genuena? Ba, igual bai, e? Alu bat pankarta batean... Lotsagarriena? Ba, igual jendearentzat, bai»

Aurrekariak ere badaude: mugimendua egon denean, askotan, mugimendu horrek bere burua izendatzeko erabili duen izena kritikatu izan da, ideiak kuestionatzeko partez.

«Lehen zegoen taldeak Saltxerak izena zuen. Gero utzi egin zuen. Niri izena espreski ez zait gustatzen, konnotazio negatiboa daukala iruditzen zait. Saltxera izatea bazterrak nahasten ibiltzea eta bazterrak nazkatzen ibiltzea da; niretzat, bai. Izena, berez, soinu polita iruditze zait, baina, konnotazioz, negatiboa»

«Izenarekin uste dut lortzen dutela gorrotoa zabaltzea Mugimendu Feministarekiko. Jendeak ulertu beharrean feminismoa ulertu behar den bezala, oraindik da kontrago jartzea. Eta gauza bera gertatzen zait LGTBQ+ elkartearekin ere»

Horren guztiaren bueltan, oraindik mugimenduko parte izatea erabakitzen duten horiek argi dute, gutxiespen horren jatorria non hasi edo bukatzen den jakin ez arren, herrian nabarmendu edo posizionatzeak bere ondorioak ere badituela.

«Nik uste dut LGTB izatea ez dela erraza; eta seinalatua izatea, gainera... ez dakit, e?»

«Ez da erraza eta gero, gainera, Pakak, zehazki, oso kutsu negatiboa hartu du herrian, eta orduan, ba, klaro, zein etorriko zaigu, ez?»

«Gure gurasoentzat ez da harrotasun bat gu mugimendu feministan egotea, osea, sin mas, ondo, baina, ez baginen egongo, hobeto igual»

«Bai, zenbat eta gutxiago destakatu herrian, hobeto»

«Bai, gero Martxoaren 8a eta ondo, guay, baina pankartaren atzean zu hobeto, ez? Zuk ez hitz egin»

Baina korapilo horien guztien gainetik, badago herri mailan Mugimendu Feministaren jarduna eta beharra azpimarratzen duen jendea, baita egindakoa balioan jartzen duenik ere.

«Nik uste espazio hori [Saregile] bizi dela espazio seguru bezala eta nik uste hor asmatu dela, eta Udalak egin du kristoren esfortzua hori jartzeko»

«Ez baldin badaude emakumeak kontatzen gauza bat edo bultzatzen gauza bat, ba, lo que no se cuenta no se sabe. Azkenean, nik uste dut mugimendu feminista bat behar dela hori bultzatzeko. Ez balitz egongo indar hori, ez zen existituko eta denak berdin jarraituko zuen. Ez ginen gauza askoren kontziente izango. Gizarte bezala behar dugu»

«Aurrerapausoak egiteko talde feminista batek egon behar du, guztia bultzatzen eta eragiten»



Indarkeria matxistaz ikasteko asko

Hilabete hauetan guztietan herrian azken urteetan mingarriena izan den jazoera batek etengabeko presentzia izan du: Lourdesen erailketak. Une batean edo bestean, guztien ahotatik irten da erailketak sortutako mina, ondoren bizitakoak, beldurrak, amorruek edo nahigabeak.

Guk ere, herritarrek adierazitako errespetu eta zaintzarekin jaso nahi izan dugu oraindik oso bizirik dagoen zauri hori, baina, ezinbestean, berdintasunari eta feminismoari lotuta eta, aurrera begirako irakurketa eta neurrien inguruan ari garela, berebiziko garrantzia du gertakariak, parte emozionalaz gain, irakurketa sozial eta politikoak utzi ote dituen jakitea. Batik bat, indarkeria matxistaren inguruko kontzientziazioan sakontzeko eta, memoria, erreparazioa eta errepikapen eza bermatzeko.

Beraz, zer ikasi dugu erailketa matxista hartatik? Zer ikasten jarrai dezakegu? Hausnarketarako utziko ditugu azken esan hauek.

«Nik sentsazioa daukat orokorrean, ezetz, osea, lehendik genekienak indarkeria estrukturala zela jarraitzen dugu hori pentsatzen eta, besteak, ba, ez dakit, oraindik jende askok ukatu egiten du indarkeria matxista izan zela erailketa hura»

«Igual ondorio bat izan zen polarizazioa sortu zuela, osea, hor ezin zinenez kokatu, orduan, ba, jende batentzat oso zaila izan zen indarkeria matxista bezala identifikatzea. Gainera, herrikide bat izanda, batzuentzat laguna izanda... eta, orduan, ez dute marko horretan kokatzen»

«Min asko dago hor eta min oso desberdinak, eta hor ere egon zen jarrera erreakzionario bat mugimendu feministarekiko. Batzuek egin zuten aitortza, jo, eskerrik asko, oso ondo, eta kontrakoa ere egon zen, eta egon zen gazteengan eta nik uste izan zela caldo de cultivo, gero etorri den guztiarentzat»

«Lourdes hil zutenean, Ikastolan, adibidez, ez zen gauza handirik egin. Jendea dago nire klasean oraindik pentsatzen duena Lourdesena ez zela izan hilketa matxista bat. Jendeak pentsatzen du oraindik dela...»

«Gogoratzen naiz, gainera, hitz egin behar zenuen, baina ezin zenuen hitz egin, ze injustua iruditzen zitzaizun, ze oso tema gogorra zen eta, orduan, zen “Eske, joe! ezin dugu ezer esan”»

«Lourdesen heriotzaren bueltan, irakasle eta hezitzaile bezala saio bat izan zuten Arraunetxen. Larrialdi egoera baten bueltan izan zen, baina holako hausnarketa eta lanketa espazioak edukitzea interesgarria da, denok ikusteko pixka bat errealitatea»

«Azken elkarretaratzean, bukatuta ere, jendeak ez zuen espaziotik joan nahi. Eta horri eutsi behar diogu, lanketaren bat egin edo...»

«Bai, momentu horrek hitz egin zuen hitz egin gabe»

Ukaezina da, beraz, erailketak mugitutakoak bizirik jarraitzen duela eta errespetu handiz zaintzen den gai bat dela inondik inora, baina, lanketa luze baterako parada ere beharrezkoa dela, memoria, erreparazio eta indarkeria matxistaren sentsibilizazioan pausuak ematen jarraitzeko.





ONDORIOAK

Beraz, Mugimendu Feminista eta LGTBIQ+ artikulatu bat existitzen da; zuzenean, gainera, gertuko instituzioak eskainitako espazio eta praktika bati lotuta. Mugimendu horiek erantzunari lotutako jarduna dute sarri, baina agenda propioa sortu eta garatzeko praktikak eta gogoak ere hor daude.

Hala ere, oraindik, ideia feminista eta mugimenduei lotutako aurreiritzi handiak daude eta horrek zaildu egiten du hainbaten inplikazio zuzena ahalbidetzea.

Edozein kasutan, badago indarkeria matxistarekiko sentsibilizazioa garatzen ari den herri bat eta hori bera indargune bezala ikusten dugu.



07

ETA ORAIN ZER?

07 ETA ORAIN ZER?

Hilabete luzeetan, Orion herri hezkidetzaila nola eraiki genezakeen hausnartu, eztabaidatu eta elkarrekin eraikitzen jardun dugu herriko norbanako, eragile, elkarte eta arduradun publikoekin. Irakurri berri duzuna horren guztiaren emaitza da, baina baita hori baino zerbait gehiago ere.

Izan ere, nork bere herriari beste ikuspuntu batetik begiratzeak herria beste era batera ikusteko aukera ere zabaltzen dio. Izan daiteke orain arte normaltzat jo izan duguna jada hain normal ez ikustea, edo oharkabean pasatutako hainbat gauza ikusten hastea; izan daiteke norberak bizi ez arren, beste batzuen ahotsetan jasotakoak hainbat gauza ulertzeko gaitasuna garatzen laguntzea ere. Eta, akaso, ez al da hori herria? Begirada, ahots eta bizipen askotarikoek osatzen dugun komunitatea, hain zuzen.

Horregatik, ariketa kolektiboa da hau, adostasuna helburu duena eta, batik bat, zapalkuntzarik gabeko Orio askotariko eta berdinzalea eraikitzeko xedea duena. Horretarako jaso dira hainbeste ahots eta arlotako bizipenak.

Eta orain, zer? Zeren eta begirada zabaltze horrek aukera paregabea eman badigu ere gure herriko ertz askoren errealitateak ezagutzeko, ikusi berri dugun guztia ez da ederra izan. Aukera eduki dugu gure herriko indargune eta ahalmenak azpimarratzeko, baina agerian geratu dira beste hainbat hutsune, min eta korapilo ere.

Bada, orain, jasotako horri guztiari forma ematea tokatzen zaigu. Horregatik, herri ekintza-plan bat eratuko da, korapilo horiek askatzeko, eta, herri bezala ditugun bertute eta gaitasun guztiak lagun, arloz arloz eta elkar lanean amesten dugun Orio eraikitzen jarraitzeko. Eta, horretarako, ezinbestekoa izango dugu herriko ertz, norbanako, eragile eta komunitate guztiaren laguntza.

Beraz, bai, esan ohi den bezala, hau bidearen hasiera besterik ez da, eta espero dugu bide horretan elkar topatuko dugula.



ERANSKINA

HERRIKO FESTAK ANTOLATZEKO BALIOEN MULTZOA

8 Balio 43 Proposamen



PARTE-HARTZAILEAK

Herritarrok egiten dugu festa, elkarteen bidez, herritarrak gara motorra. Herri langilea da Orio, talde-lanean ari dena. Askotariko herritarrak arduratik eta gozamenetik ari dira, eta parte hartze horrek baditu bi dimentsio: proposatzailea eta exekutatzailea. Hau da, festa ereduaren inguruan hausnartzea, batzordean proposamenak egitea eta festa aurretik zein jaiegunean lan egin eta gozatzea da helburua.

Eskatzeaz haratago norberak taldean egitea da gakoa. Festetan ez gara hornitzaile eta bezero, lanean ari direnak berentzat eta oriotarrontzat ari dira. Horregatik, ongi etorriak izango dira festen inguruko balorazioak edo kritikak, baina lanean aritu den jendea zainduz beti.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Batzordeko bilerak aurretiaz antolatu: San Pedroak urtarrilean eta San Nikolasak uztailean hasi.
2. Batzordeko deialdiak ahalik eta irekienak eta erreferentzialenak egin, ohiturak sortu.
3. Batzordean gutxien parte hartzen duten adin tarteak modu berezian landu: gazteak eta adinekoak.
4. Batzordean festari lotutako profesional guztien parte hartzea ziurtatu.
5. Partehartzearen dikotomia landu: batzordean iritzi emateaz gain festetan ardura bat hartuz.
6. Festa batzordetik datak gerturatu ahala ardurak eta lanak banatzeko izen emateak bultzatu.
7. Etengabe, festa partehartzailea bihurtzeko formulak arakatu.
8. Ikusteko diren ekitaldiak eta parte hartzea bultzatzen dutenak orekatu.

02**BELAUNALDIARTEKOAK**

San Nikolas eta San Pedro festek aukera eskaini behar dute adin ezberdinetakoek parte hartzeko. Identifikatu dugu zein adin-tartetan jaisten den parte-hartzea: umeei, 12-16 urte bitarteko gaztetxoei eta 60 urtez gorako herritarrei erraztu behar zaie festaz gozatzeko aukera.

Ahalegin berezia egingo dugu belaunaldiarteko ekintzak bultzatzeko; alegia, belaunaldi ezberdinetako oriotarrei aukera eskaini behar diegu festa elkarrekin bizitzeko.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Berariaz lanketa egingo dugu 12-16 urteko gazteekin eta hirugarren adinekoekin, bi ikastetxeen, Txurrumuski aisialdi taldearen eta Zaharren Babeslekuaren bitartez.
2. Ahal bada, egunero programatuko ditugu adin ezberdinetarako ekintzak.
3. Gazteen egunak edo adinekoentzako festa eguna izendatuko ditugu.
4. Gazteen arteko jokoetan gaur egungo eta garai batekoak uztartuko ditugu.
5. Beste herrietan sortzen diren belaunaldiarteko ekintzak herrira ekartzeko aukera aztertuko dugu.
6. Sukaldaritza-ekimenak gako izan daitezke belaunaldiarteko ekimenak egiteko, baina aukera gehiago aztertuko ditugu. Alegia, sukaldaritza ez dadila izan adin ezberdinetakoak biltzeko interesgune bakarra.

7. Herriko elkarte gastronomikoen inplikazioa bultzatu, belaunaldiarteko proposamenak sortzeko.



ASKEAK ETA SEGURUAK (ERASORIK GABEAK)

Askotarikoak gara oriotarrak eta inor ez da erasotua izango adin, arraza, kultura edo sexu-aukerarengatik. Herriko festen antolakuntzak ez die zirrikiturik utziko erasoei eta erasotzaileei.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Aldiro- aldiro, indarkeria matxistari, indarkeria sexistari, LGTBIO+ fobiari, arrazakeriari eta beste indarkeria kasuei erantzuteko protokoloa berrituko da festen aurretik. Protokoloak zehaztuta utziko ditu nola identifikatuko den eraso, erasotzailea festa gunetik kanporatzeko bidea, erasotuari eskaini beharreko laguntza eta aholkularitza, jaiguneetako arduradunen eta udal ordezkarien arteko koordinazioa eta gertakariaren salaketa publikoa egiteko modua.
2. Indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa komunikatzeko euskarriak landuko dira.
3. Festa-egunetan, iluntzean eta gauean, eraso matxisten informazio zerbitzua jarriko da.
4. Pertsonen gain herriko altzariak jasaten dituzten kalteak zerrendatu.

04 FEMINISTAK

Mugimendu feministarekin elkarlanean festa parekideak lortzeko pausoak emango dira. Hiru dira lan-lerroak: guztiontzat espazio seguruak sortzea, genero-rolak eta ardurak orekatzea eta artista emakumeen ikusgarritasuna lantzea.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Oholtzan emakume eta gizonezko artisten oreka %50 inguruan biltzea.
2. Ohiko lan-banaketari buelta ematea, otorduetan bereziki: zaindu egingo da zerbitzen, garbitzen eta mikroa eskuan daudenak zein diren.
3. Herriko festek kirol-lehiaketak hartzen dituzte eta lanketa berezia egingo da lehiaketa horien kategorizazioan eta irabazleen ikusgarritasunean.

05 EUSKALDUNAK ETA EUSKARADUNAK

Euskara erabiliko dugu herriko festetan, eta bozgorailutik entzuten dugun musika ere nagusiki euskarazkoa izango da. Hori bai, ez gaude itxiak beste hizkuntzetan egiten den kulturetara, baina euskaraz egiten den kulturaren ardaztu nahi ditugu San Pedro eta San Nikolas festak.

Herri izaera errespetatu eta aldarrikatzeko Euskal Herriko eta Orioko ohiturak mantentzea da helburua, baina tradizioa ez dadila aitzakia izan festa berdinzaleagoak ez gauzatzeko, tradizioa berritzen diren ohituren multzoa baita, garaiko balioetara egokitzen dena.

Festak baliagarri izan behar dute herriko proiektu nagusiak balioan jartzeko, hala nola herriko kultur, kirol- eta aisialdi-taldeak, eragile sozialak, ikastetxeak eta Danbolin Musika eskolak, besteak beste.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Euskaraz sortutako kulturarentzat %75 kuota proposatzen dugu, eta %25ekoa beste kulturetakoentzat.
2. Aztertuko da ea plazako musikak (oholtzakoak eta txosnakoak) eta programazioak betetzen ote dituen ezarritako kuotak. Programatu aurretik eta ondoren aztertuko dira laginak.
3. Herri-izaera eta kohesioa indartzen duten ekitaldiak bultzatuko dira, baina bereziki zainduko da berdintasunaren eta aniztasunaren inguruko zeharlerroak betetzen dituzten edo ez.
4. Orioko herriko festen historia ezagutzeko ikerketak bultzatuko dira.
5. Festetan eragile guztien lana jarriko da balioan programan eta ekitaldian zehar.



ANITZAK, ASKOTARIKOAK

Denok elkarrekin ospatu nahi ditugu festak. Izan ere, jaiak baliagarriak dira herrian bizi diren kolektibo guztien ikusgarritasuna lantzeko. Horregatik, ahalegina egingo dugu gutxiengoan dauden herritar-taldeen festek ere erdigunea har dezaten eta ohikoagoak diren proposamenekin uztartzeko.

Gutxiengoan dauden kolektiboak askotarikoak izan daitezke. Esaterako, baliatu ditzagun festak arrakala sozialak bistartzeko, etorri berriak herrian integratzeko edo festa-eredu bakarra heteroarauetatik ez sortzeko.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Elkarlan jarraia egingo da herrian abiatu den LGBTQ+ kolektiboarekin.
2. Atzerritarren edo etorkinen proposamenak jasotzeko ahalegina egingo da, antolatutako komunitateekin hasita. Proposamenak eskatuko zaizkie eta festara gonbidatu.
3. Lanketa sozialen bat oinarrian duten ikuskizunak eta eragileen proposamenak txertatuko dira festetan.
4. Proposamen berriak hegemonikoekin uztartuta aurkezteko ahalegina egingo da.
5. Kolektibo horien alde lanean ari diren herritarren bitartekaritza eta ikusgarritasuna landuko da.

07 BIZIGARRIAK

Plaza izango da festaren epizentroa, plaza herritarrez beteta ikustea da festetako argazki ederrenetakoa. Halere, ibilbide ezberdinak sortuko dira festa herriko beste txokoetara zabaltzeko.

Eguneko festa bultzatuko da, adin guztietako herritarrengana iristeko modurik osasungarriena delako. Halere, ez da gaueko festa kriminalizatuko, denontzat izan baita gaua noizbait festa-momentua.

Herriko festetan kontsumo kontziente eta arduratsuaren inguruko gogoeta sustatuko dugu.

Azkenik, herri eta jai zaintzaileak antolatu nahi ditugu, zaintza ez baita dependentzia duten pertsonen beharrak asetzeko egiten dugun lana bakarrik. Elkarzaintza, autozaintza, komunitatearen zaintza, espazioaren eta ingurugiroaren zaintza kontuan izango dugu.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Ekitaldi nagusiak plazan egingo dira, erdigunea delako eta azpiegitura nagusiak bertan daudelako.
2. Ekitaldietan bolumena zainduko da, goizaldeko eta goizeko lehen orduetan nagusiki.
3. Plazaren garbitasuna zainduko da, ekitaldien aurretik eta ondoren.

4. Ekitaldi ibiltarien zirkuituak landuko dira, festa auzo eta kale gehiagotara iristeko. Publiko egingo dira ibilbide horiek, ezustekoak ekidin eta segurtasuna bermatzeko.

5. Aurrera begira, herrian kontsumitzen diren sustantzien inguruko ikerketa egingo da.



JASANGARRIAK

Kontsumo arduratsuan eta naturarekiko errespetuan antolatu nahi ditugu herriko festak. Horregatik bereziki zainduko ditugu festetan eskaintzen ditugun otorduak. Aukera beganoko otorduak eskainiko ditugu, eta herriko gertuko produktuekin osatuko ditugu festetako menuak. Horrez gain, festetan sortzen den zaborraren inguruko kontzientzia eta ekintza zuzena landu nahi ditugu.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Otorduen diseinuan, osagaiak herrian bertan erostea lehenetsiko dugu.
2. Otorduetan, ahal denean, etiketarik gabeko menuak sortuko ditugu, menu beganoa eta normala bezalako terminoak sahiestuko ditugu.
3. Herri-bazkarietan menuak oinarri berbera eta beganoa izatea da helburu nagusia.
4. Dastaketetan menu beganoa eskainiko dugu.

5. Festa-batzordeak erraztasunak eskainiko dizkie otorduen antolatzaileei helburuak lortzen errazteko.
6. Otorduetan sortzen den zaborra gutxitu eta egokiago kudeatzeko lanketa zehatzak egingo dira.

Herriko festak antolatzeko balioen multzoari dagozkion

OHARRAK

Dokumentua Festa Batzordeak landu du 2024ko udaberriko bileretan.

Festen balioen multzo hau malgua eta irekia da, eta etengabe berrikusi eta egokituko da.



saregile*


ORIO
marra biztan.


elhera